

GUaiXE.net



Aitor Zubieta
buruz buruzko
txapelketan



Kirola >> 11

Iortiako antzerki tailerrak El Sur
lanaren emanaldi bikoitza
eskainiko du bihar. Antzerki
musikaletik gertu dago obra



Kultura >> 14



Igande goizean Etxarri Aranatzeko egiten da, Belardik antolatuta.

Igandean, Lore Azoka Arbizun

Herrian barnako historia ibilaldia ere izanen da. >>5

Arakilgo Udalak 6 kontratazio eginen ditu

>>7

Altsasun 5,3 milioiko aurrekontua onartuta

Inbertsioetara 63.501,44 euro bideratuko. Baina horri 2012ko superabita gehitu dakioko >>7

Lehen sektorearen azoka gardena, Ama-Lur

>>5

**Epaileari kautela-
neurriak eskatu diote**
Lazaroko langileek >>8

Sunsundeguiko
kaleratzeengatik LABen
mobilizazio deia >>8

Konposta egiten
ikasteko bilerak
hasiko dira
heldu den
astean >>9



Izurdiagak
mendi bizikleta
festa hartuko du
igandean >>13



Dantza
emanaldiak
Irurtzunen (2)
eta Etxarrin >>15



Arakildar eta
irurtzundarrak
EKEren gazte
topaketan >>15

ARBIZUKO
landare
eta lore
AZOKA
apirilak 21
igandea

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Xabier Igoa Nazabal
10 urte dagoeneko gure mutil ederrenak ZORIONAK fameli guztien partetik.



Naroa Granizo Saez de Adana
ZORIONAK!! Muxu asko, Naroa, aita eta ama.



Ainhoa Carabias
ZORIONAK potxola!! Muxu asko, Naroa, aita eta amaren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

apiribilak

19-25

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Etxeko dj. Apirilaren 20an, larunbatean, 00:30etik aurrera Irurtzongo Pikuxar euskal txokoan.

Dantza

Mu-To. Apirilaren 19an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hierbaroja.**

Udaberriko dantza jaialdia. Apirilaren 20an, larunbatean, 19:00etan Irurtzongo frontoian. Hueska, Lasarte-Oria eta Irurtzongo taldeak.

Tangos argentinos Astor Piazzolla. Apirilaren 21ean, igandean, 19:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Trio Palatino.**

Antzerkia

El sur. Apirilaren 20an, larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Antzerki tailerra.**

Carpe diem, amigos para siempre. Apirilaren 20an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Ali Baba eta 40 lapurrak. Apirilaren 21ean, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Ipuin kontalaria

Lurretik sortutako ipuinak. Apirilaren 25ean, ostegunean, 17:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Izaskun Mujika.**

Ipuin bat nahi? Apirilaren 25ean, ostegunean, 17:30etan Olatzagutiko liburutegian.

Dokumentalak

Fuego purificador. Apirilaren 19an, ostiralean, 19:00etan Bakaikuko udaletxe areto handian.

Autopista elektrikorik ez! Apirilaren 23an, asteartean, 19:30ean Iturmendiko auzogelan. **IGA.**

Zinema

La noche más oscura. Apirilaren 19an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren

21ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Los croods. Apirilaren 21ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteera

Atako ibarra. Apirilaren 21ean, igandean, 9:30ean Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolatik. **Sakanako Ikastolen mendi taldea.**

Txirindula irteerak

Altsasu-Zumaia. Apirilaren 21ean, domekan, 7:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 72 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Ibilbidea

Basotik itsasora. Interpretazio ibilbidea. Apirilaren 20an, larunbatean, 11:00etan Altsasuko Dantzalekutik abiatuta.

Erakusketak

Oihanetik itsasora. Apirilaren 21era, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

Aire Berriak. Apirilaren 19an eta 20an, ostiralean eta larunbatean, 16:00tik 20:00etara, Iturmendiko udaletxean. **Luisa Ortiz.**

Autopista elektrikorik ez! Apirilaren 22tik 28ra Iturmendin. **IGA.**

Uraren gazte foroa. Apirilaren 22tik maiatzaren 5era Altsasuko lortia kultur gunean. **Aralarko Mikel Donea I BHiko ikasleak.**

Hitzaldiak

Fracking-ik ez! Apirilaren 19an, ostiralean, 19:00etan Iturmendiko auzo gelan. **IGA.**

Literatura

El silencio de las hayas, sabor a nuestra tierra. Apirilaren 25ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia

kultur gunean. **Mikel Alvira.**

Tailerrak

Guraso eskola. Apirilaren 22an, astelehena, 15:20etik 17:00etara Irurtzongo eskolan.

Uraren inguruko ipuina eta eskulanak. Apirilaren 23an eta 24an, asteartean eta asteazkenean, 17:30ean Altsasuko herri liburutegian. **Amai taldea.**

Hirigintzari buruzko tailer praktikoa. Apirilaren 24an, asteazkenean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Konpostatzen ikasteko ikastaroak. Apirilaren 22an, astelehenean, 11:00etan Izurdiagan eta 16:00etan Aizkorben. Apirilaren 23an, asteartean, 18:00etan Egarrretan. Apirilaren 24an, asteazkenean, 11:00etan eta 17:00etan Etxarrenean, 19:00etan Hiriberrin eta 19:00etan Satrustegin. Apirilaren 25ean, ostegunean, 11:00etan eta 17:00etan Irañetan.

Bestelakoak

Lore azoka. Apirilaren 21ean, igandean, 17:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ama-Lur azoka. Apirilaren 21ean, igandean, 10:00etatik 15:00etara Etxarri Aranazko plazan.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutako Plataforma. Apirilaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 19an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 21ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Apirilaren 22an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Apirilak 27 larunbata

ELKARTASUN EGUNA '2013 ETXARRIN

ETA EGUN OSOAN ZEHAR...
Etxarri Aranazko Zuzendariak Taldea Teusnak

10:00etatik 13:30era Puzgarriak eta umeentzako animazioa
13:30etatik 14:30era Bertso Saioa: Eneko Lazkoz - Xabier Silveira - Josema Leitza - Jokin Uranga
14:30etan Herri Bazkaria (Txartelak Xapateron eta Lekuonan salgai)
18:00etatik 19:30era Herri Kirolak: Etxarri- Arbizu- Lakuntza- Altsasu
20:00etan **MANIFESTAZIOA**
21:00etatik 02:30era TXIMELETA

Herrera

107.3 FM

beleixe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiraleko 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda
Asteko errepassoa: albisteak, kirolak, Ama-lur azoka, Etxarri 2012+1, lan arloa...
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

Nafarroako Mendialdeko garapena da gure apustua

Langabeziatik irten eta ekintzaile izateko pausoa

Azken aldian, langabezia datuek nabarmen egin dute gora. Zifra ilun horietatik urrundu nahian, asko dira haien enpresa sortzea pentsatzen ari direnak. Aldez aurretiko esperientzia, *hobbyren* bat, ezagutza... horiek oinarrian hartu eta pausoa ematen dute. Auto-enplegua langabeziatik irteteko modua da. Pertsona horiek ez dute pausoa bakarrik ematen, **Cederna-Garalurrek**, Nafarroako Mendialdeko garapen elkarteak, laguntza eskaintzen baitie ekintzaile izan nahi duten pertsonari. **Anima zaitetz!**

Rosa Legarra



Adina: 39
Auto-enplegua: Psikologia eta lore terapia kontsulta bat muntatu du Irurtzunen.

Zerk bultzatu zintuen pauso hau ematera?

Psikologia ikasketak egin ditut eta bi elkartetan lanean egon ondoren, langabezia gelditu nintzen eta, ondorioz, kontsulta jartzea erabaki nuen.

Nola sortu zitzaizun zehazki enpresa horren ideia?

Psikologia asko gustatzen zait. Horretan lan egin nahi nuen eta gainera, nire herrian jarritz gero, amatasuna lanarekin partekatu ahal izango nuen.

Enpresa sortzeko zein pauso eman dituzu?

Cederna-Garalurrekoekin harremanetan jarri nintzen laguntza eske; etxeko gela bat prestatu nuen; nire izena ezagutzera eman nuen. Baina, nire kasuan, publizitatea baino, ahoz ahoka izan da garrantzitsuagoa ezagutzera emateko.

Zein aholku emanen zenioke langabezia dagoenari?

Bizitzen ari garen egoera larri honetan, bi gauza egin ditzake langabezia dagoenak: deprimitu edo egoera berri hau aprobetxatu eta gustukoa duen zerbait muntatu.

Cederna-Garalurrek zertan lagundu zaitu?

Egoera kontutan izanda, haiekin hitz egitera joan nintzen ideia berrien bila, eta jarraitzeko indarra eman zidaten.

Lanbide aldaketa handia da zure kasuan...

Igeriketa irakasle lana udako lana zen, ikasten nuen bitartean, zeren nire betiko nahia, txikitatik, psikologo moduan lan egitea izan da.

Galder Garmendia Mikeo



Adina: 35
Auto-enplegua: Hiru Haitz furgonetak, ibilgailuak neurri ego-kitzeko (sukaldea, ohea eta abar muntatzeko) enpresa, Urdiainen.

Zerk bultzatu zintuen pauso hau ematera?

Nire kontura aritzeko asmoa. Nik bakarrik aurrera egiteko balio dudala iruditzen zait.

Nola sortu zitzaizun zehazki enpresa horren ideia?

Kasik betidanik izan ditut furgonetak. Nire furgonetak nik jarri ditut. Lagun batzuei gustatu eta haiei ere zerbait egin. Jendea, nik egindako gauzak ikusita gustura gelditu da eta, horrek, aurrera egiteko animoa eman dit. Lehen, honetan hasteko asmoa izan nuen, baina azkenean utzi egin nuen. Buruan beti tema horrekin bueltaka eta, azkenean, probatzea erabaki dut.

Enpresa sortzeko zein pauso eman dituzu?

Oraintxe paper kontuak egiten ari naiz, autonomotan alta eman, bideragarria den jakiteko kontuak egin...

Zein aholku emanen zenioke langabezia dagoenari?

Ametsen bat baldin badu, saiatzeko aurrera egiten, ez egoteko zain.

Cederna-Garalurrek zertan lagundu zaitu?

Kontuak ateratzen lagundu didate. Materialak eta nola planteatu. Lokalarendako dauden lege eskakizunak...

Lanbide aldaketa handia da zure kasuan...

Dezente, bai. Ikasi nituen gauza guztiak ez didate ezertarako balio izan. 10 urtez iturgin aritu naiz eta Indar enpresan eolikoak egiten ere. Eta orain, kontu honekin gehien balio didana nire kontura egindako gauzak dira.

Ageda Santamaria Lezea



Adina: 53
Auto-enplegua: Mertzeria eta lantzeria denda, Olatzagutian.

Zerk bultzatu zintuen pauso hau ematera?

Beti nire kabuz lanean ibili naiz: tabernetan asko, liburu-denda bat izan zen azkena... Orain gasolindegian batean nengoan. Nahiko larri genbiltzan, pertsona bat bota behar zuten eta nire burua aurkeztu nuen. Faltan botatzen nuen nire kabuz aritza. Animatuta nago.

Nola sortu zitzaizun zehazki enpresa horren ideia?

Aurreko nagusia jubilatuta behar zela enteratu nintzenez, galdetzeraz etorri nintzen. Herrian ez dago besterik eta, garai honetan, itxi behar zen. Etorri, elkarrekin hitz egin eta zegoen bezala hartu nuen. Aurrekoaren segida da. Ikusiko dugu jendearen eskaerak nondik nora doazen.

Enpresa sortzeko zein pauso eman dituzu?

Pausoak errazak dira eta denak bi egunetan izan dira. Lehen, emakumea izategatik eta ez dakit zenbat urte izategatik... laguntza ematen zuten. Orain, erriz, ez dago halakorik. Langabezia dena batera kobratzea eskatu dut eta erantzunaren zain nago.

Zein aholku emanen zenioke langabezia dagoenari?

Idea buruan baldin badu, nik uste aurrera egin behar dela. Behintzat saiatu. Ez dakit ni nola aterako naizen hemendik.

Cederna-Garalurrek zertan lagundu zaitu?

Duela 7-8 urte ideia hau bera izan nuen eta Cederna-Garalurrera bideragarritasun plana egitera joan nintzen. Liburu-dendarena atera zitzaidan eta dena utzi nuen. Momentu honetan aholku asko jaso ditut: erakuslehoia nola jartzen den, gauzak nola egin behar diren, hornitzaile zerrendak...

Garapen agenteak:

Susana Mendinueta: sakana@cederna.es • **Oskia Lazkoz:** sakana.admon@cederna.es • **Myriam Imaz:** mimaz@cederna.es

Cederna-Garalur. Utzubar industrialdea, 8. lursaila, Arbizu. 948 567 010





Raf Atxuri

astekoa

Constantino Salinasen **profezia**

Urte mordoia joan da Constantino Salinas altsasuar sozialistak 1932ko estatutu euskonafarraren gaineko proiektuaren karietara perpausa bota zuenetik: “Nafarroak gainerako hiru probintziekin bat egin behar du jauntxokeriaren atzaparretatik aterako bada”. Esan gabe doa Constantino espainiar errepublikano aber-tzale sutsua izan zela, Espainia-

kobanderaz idatziliburuttoa irakurtzea besterik ez da.

Bada, larogei urte igaro ondoren altsasuarraren mintzo hau gure buruen gainean hegan dabil berriz bele tematien antzera inoiz baino salatzaileago, sekula baino lotsaz mikatzago.

Constantinok arrazionalisten zorrotasunaz aztertu zuen bere garaiko egoera tamalgarria, bai-

ta azti inspiratuen intuizioaz geroko belaunaldien ibilia. Arazoaren muina isolatu eta seinatu zuen: jauntxokeria. Nafarroa Garaiko azken hamarkadetak politikagintzak ederki asko erakutsi du zeinen bete-betean asmatu zuen, eta EAeko balizko erasoan aitzakiaz majo baliatu da eskuina bere aginte absolutista areagotzeko.

Nekez imajinatuko zuen, ordea, Constantinok nafar sozialisten zeregina salda lodi eta likatsuhonetan. 1981an pitteka ekinbide euskalfoboari lotu eta jauntxo berrien klub eskusibora sartzen saiatu da aurreko nafar sozialista, komunista et errepublikanoen xedeari uko eginez apur ustel batzuen truke. Nafarroako gobernu erdie-

tsi zuten bai, baita alderdiaren historia orbanetz bete.

Hastapenean Arbeloa, Urralburu, Boulandier, Felones eta Asiain, gero Lizarbe, Chivite edo Iturbe. Jiménez gaur egun.

Jauntxokeria eta ustelkeria ditugu nagusi 2013an. PSNk bidegurutze honetan erronka latza du. Constantinoren profeziaren oihartzunak iritsiko zaizkie?

hara zer dien

Izan zaitez boluntario!

Boluntarioa: aukera propioagatik eta trukean ordainsaririk gabe bere denbora librearen zati bat ekintza solidario batera eskaintzen duena da.

Boluntariotza mota asko dade, eta arlo askotan jardun daiteke, arlo soziala, kultura, hezkuntza, ingurugiroa, osasuna, parte hartzea, giza eskubideak, larrialdietan laguntza, garapen sozio ekonomikoa, aisialdia... Kasu guztietan boluntarioek eskaintzen dutena ez da baka-

rrik denbora. Bakoitzak, pertsona bezala duen hoberena, dohain eta interesik gabe ematen du. Bere jardueran, pertsonen duintasunarekiko errespetua eta gizarte eskubideak kontutan hartuko ditu, konfidentzialtasuna zainduz.

Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan boluntario talde bat martxan jarri nahi dugu. Helburuak hauek dira: Dagoeneko antolatzen diren hainbat ekintza bideratu edo indartu (elika-

gaien bankua, “Itxipuru” arropa biltegia, dependienteak diren pertsonen laguntza...) eta baita beharrezkoak diren beste batzuk martxan jarri ere (klase partikularrak...). Pertsonen gizarte beharretan jartzen dugu garrantzia, baliabide ekonomiko edo giza baliabide nahikoak ez dituztelako.

Bestalde, denbora librean ekintza solidarioen bat egin nahi duten pertsonen tuki bat eman nahi zaie, burutzeko gaitasuna

duen ekintzetan parte hartuz.

Momentu honetan denbora librean duen jende gehiago dago eta, bestalde, boluntarioen beharra dago, ez baitugu dirurik gaurazko egiteko. Gizarte aldatzea beharrezko ikusten badugu, gure gertueneko errealitatek has gaitezke.

Boluntario izateak denbora zehatz batean lan egiteko konprometua suposatzen du, garai konkretu batean eta astean ordu kopuru konkretu batekin. Oina-

rrizko gizarte zerbitzutik formazio eta aseguruak egiteko konprometua hartuko genuke. Parte hartzeko, deitu Oinarrizko Gizarte Zerbitzura, gure telefonoa: 639-127-271, edo bidali mezu bat, ssiururtzun@gmail.com.

Gizarte Zerbitzuak

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutunak LABURTU egingen dira. Gutunetan izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Ekin eta egin

Miren Razkin

Apirilak 8an guztiz urtu zen burnizko dama, 87 urte zituelarik. Izaki bizidun baten galera ez da inoiz alaitzeko arrazoia, baina egia da, galera batzuk beste batzuk baino sentituagoak direla. Funtsean, Ameriketako politika jarraitu zuen andrea

izan zen; baita lehen emakume ministra Europa mailan. Penagarria benetan, eredu bezala eduki genezakeena, azkenik, lotsagarri suertatzea. Urteak pasa ziren boteretik kendu zuten arte, baina egia esan, nahiko garaiz egin zutela uste dut. Ez beste batzuk bezala, gainbeherara garamatzatela eta, alaiago edo tristeago, beraiekin batera eramaten gai-

tuztela, guk hori nondik eten ez dakigula.

Galera beraz, bera bizi-bizirik zegoenean izan zela esango nuke; ez hilabete eskas eduki genuen galera. Bere herriari horrenbeste onura ekarri zion 58 urteko gizona, osasunak kendu zuen boteretik, hainbat gauza egiteko zituelarik.

Bizitzak horrelako gertaerak erakusten dizkidan honetan, bi

ondorio atera ditzaket: lehenengo, sexua ez dela erreferentia politika kontuetan; lotura gehiago du pertsonaren ezaugarriekin, eta horren garai iristen diren gehienek antzekotasunak dituzte. Bigarrena, ezin dela osasunaren zain egon norbait boteretik kentzeko. EKIN eta EGIN beranduegi izan baino lehen!

gora/behera

▲ Azoka gardenak
Bertakoa, bertakoek ekoiztua eta bertakoek kontsumitzeko.

▼ Lan gatazkak
Krisiarekin, zoritxarrez, ez dute etenik.

Guaixe

ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Garazi Barandalla Kanpos

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

SAKANA

Ama-Lur azoka, berriro bueltan

igandean, 10:00etatik 15:00etara,
Etxarri Aranazko plazan

16 ekoizle beren produktuak salgai izanen dituzte eta ekoizpen prozesuei buruzko erakustaldiak izanen dira. Musika eta herri kirolak ere izanen dira, baita lan-tresna eta abere-jakien erakusketa

Belardik Sakanako nekazaritza eta abeltzaintzaren erakusleio izan nahian, joan den urtean Ama-Lur azoka sortu zuen. EHNE sindikatuaren babesean sortutako taldeak ibarrean lehen sektorea bermatzea eta kontsumo zuzena eta tokikoa bulkatzea du helburu. Sakanako 11 ekoizlerekin batera, Lizarralde eta Iruñerriko antzeko ekimenetako beste 5 ekoizleren postuak izanen dira.

“Sakanan ekoizten ez diren produktuak ekarriko dituzte, ardoa edota ezti, esaterako” argitu digu Aritz Ganboak, Belardiko kideak.

Etxarriko herri baratzak

Etziko azokako 17. postuan Etxarri Aranazko herri baratzaren proiektuaren berri emanen da. Etxarri Aranazko Udalak Etxarriar talde baten eskaerari erantzunez herri-lur bat utzi du proiekturako. Talde horrek kudeatuko du lur saila eta azalpenak igandeko azokan emanen dituzte. Proiektuak aisi aldi erabileraz gain, herritarrendako komunikazio esparru irekia izan nahi du. Aldi berean, adin tarte ezberdinen arteko kultur transmisioa sustatu nahi dute sustatzaileek. Gainera, tokiko hazien aldeko apustua eginendute, norbera elikagaiz hornitzeaz gain. Belardiko Ganboak azaldu zuenez, “lehen sektorea dinamizatzeke proiektua da”.



Iker Manterola, Aritz Ganboa eta Begoña Goikoetxea aurkezpenean.

“Ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena sustatu nahi dugu. Azoka ekoizpen eta kontsumo eredu baten aldeko aldarrikapena da, jai giroan” esan du Ganboak. EHNEko kide den Begoña Goikoetxeak, ekoizle eta kontsumitzailearen harremanak elkarren arteko konpromisoan oinarritzen direla gaineratu du.

mitzailearen harremanak elkarren arteko konpromisoan oinarritzen direla gaineratu du.

Azoka gardenak

Horiek berreskuratzea da Belardiren asmoa. Goikoetxeak jakina-

San Migel azoka

Azoka gardenak (ekoizle-kontsumitzaile) berreskuratzeke asmoaren baitan, Belardi, Arakilgo eta Iruñerriko udalekin harremanetan dago udalaren egiten zen San Migel azokaren berreskuratzeke.

razi duenez, igandeko moduko azokak ARCO ekimenaren barruan kokatzen dira. Salmenta zuzena egiteko modu ezberdinak bultzatzen ari dira. “Horrela familia ustiapenak mantendu, bizi-iraupena bermatu, ingurumena eta paisaia zaindu eta babesten delako” ziurtatu du EHNEkoak.

Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak lehen sektoreak, zeharka, gizarteko arlo asko hartzen dituela esan zuen. Igandekoa “sektorea biziberritzeko” tresna gisa ikusten duela azaldu zuen: “kultura-jakituriari, pertsonen bulkada emateko”. +www.guaixe.net

>> Arbizu

Loreen garaia

Arbizuk lore azoka hartuko du
igandean, 9:00etatik aurrera

Udaberriari gaude, aspaldiko partez eguzkia agertu da eta sakanadar askok burua baratz, lore eta lorontzietan dute. Lore eta landare denboraldia prestatzeko igandean Arbizutik pasatzea primerako gomendioa da. Izan ere, lore azoka hartuko du etzi Arbizuk, Udalak antolatuta. Loreen aitzakiarekin, festa polita sortzen da Arbizun.

Aukera zabala

Goizeko 9:00etatik aurrera izanen da zer ikusi eta erosi Arbizun. Lore eta landareez gainezka datozen 8

postu kokatuko dira plazan eta inguruneetan, loreak lantzen dituzten artisauekin batera. Horretaz gain, eta gaiarekin lotuta, Mankomunitateak konpostatze erakustaldia egingen du.

Arbizuko historiari begira

Aurten 200 urte beteko dira Napoleonen armada Sakanan barna pasa eta herriak erre zituela, Gasteizko bataila galdu eta atzera egiten ari zela. Arbizun 45 etxe erabat deseginik geratu ziren eta herriaren memorian zauri nabaria geratu zen. Gertaera gogorazteko herri ekimena dago mar-



Lore eskaintza zabala izanen da.

txan Arbizun. Horrela, Xabi Reparaz historialariak duela 200 urteko Arbizu ezagutzeko aukera emango du igandean, 12:00etan, berarekin ibilaldi historikoa egiteko aukera izango baita.

SAKANA

Errenta aitorpena euskaraz egiteko deia

Foru Ogasunaren aurrean errenta aitorpena egiteko garai iritsi da. Hori modu askotara egin daiteke, baina edozein modutan eginda ere euskaraz egiteko aukera dagoela gogorarazi dute Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMatik.

Moduak

Ogasunaren auto-likidazio proposamena gutun elebidun bidez jaso dutenek onartzeko garaian euskaraz nahi dutela esatea baino ez dute. Aurtengo behin betiko aitorpena euskaraz bidaliko dute, eta

aurrerantzean ere hala egingen dute.

Era mekanizatuaren bidez errenta aitorpena egin nahi dutenak, haziendako bulegoan hitzordua eskatzerakoan, harremana euskaraz izan nahi duela adierazi beharko du. Horrez gain, aitorpena egitera joatean, agiria euskaraz ematea nahi dela eskatu.

Internet bidez errenta programa jaitziz gero, berriz, euskarazkoa aukeratu. Bestalde, aholkularitza enpresaren bat aukeratu gero, espresuki adierazi beharko zaio aitorpena euskaraz egin nahi dela.

Bazkide zozketa



APIRIBILEKO SARIAK:

1.- 2 SARRERA EKAINBERRI KOBAZULOETARAKO + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA + ELHUYAR FUNDAZIOAREN LIBURU BAT
2.- KATXIPORRETA ARROPA 1 + TRIMAN

NAVARRA 2 SARRERA + ELHUYAR FUNDAZIOAREN LIBURU BAT
3.- KATXIPORRETA ARROPA 1 + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA + ELHUYAR FUNDAZIOAREN LIBURU BAT
4.- KATXIPORRETA ARROPA 1 + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA + ELHUYAR FUNDAZIOAREN LIBURU BAT



Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en
zerrenda osoa ikusgai

REDIN LURRINDEGIA
ETA KOSMETIKA

ALTSASU

50 euroko erosketaren baten-
gatik Julene dendan erabil-
tzeke %10 deskontu balea.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI

% 10 eko deskontua eguzki

bataurrekoetan eta % 15
bataurreko graduatuetan.

LIZARDI ESTETIKA
ZENTROA

ETXARRI

%5a depilazioetan.

HOSTO GORRI
ALTZARIAK

ETXARRI

Dendako produktuetan %5-
eko deskontua.

GOROSTI

ALTSASU

30€tik gorako erosketetan
% 10eko deskontu-balea
hurrengo erosketarako.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU

60€-tik gorako erosketetan,
%10eko deskontu-bale bat
hurrengo erosketarako.

ANTSOTENEA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

» Etxarri Aranatz

Udalak jaso zuen herri galdeketa egiteko eskaera

Erabakitze eskubidea bermatzeko eskaera egin zieten udal agintariei

Etxarri 2012+1 ekimeneko kideak atzo goizean aurkeztu zuten Etxarri Aranatzko udaletxean herri galdeketa eskaera babesten duten sinadurak. Mikel Mundiñanok, Susanna Suderak eta Manolo Camposek 360 etxarriarren sinadura aurkeztu zizkioten udalari. Babes horrekin Etxarri 2012+1 ekimenak "erabakitze eskubidea etxarriarren eskura jarri nahi dugu. Ariketa demokratiko bat; benetako demokrazian oinarri behar lukeen eskubidea praktikara eraman nahi dugu" azaldu zuen Mundiñanok.

Adosalzaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda, Europako estatu independente berrin baten parte izatearekin? Etxarriarren galdera horri erantzutea nahi



Susanna Sudera, Manolo Campos eta Mikel Mundiñano sinadurak aurkezten.

dute ekimeneko kideek. "Herritarrek "etorkizunean zer izan nahi dugun" adierazteko.

Autodeterminazio eskubidearen inguruan etxarriarren galdera egiteko eskaera Foru Legeak eskatutako babesarekin erregistratu

ondoren, udal bilkura berezi batean aztertu beharko du gaia Etxarri Aranatzko Udalak. Ekimenetik etxarriarren maiatzean izanen den bilkura hartara joateko deia luzatu zuten eta, bide batez, sinatzaile guztiei eskerrak eman zizkieten.

»

Sorturen ibarreko Eskualde Kontseilua eratuta

Atzo aurkeztu zen Sorturen ibarreko egitura. Dozena bat pertsonak osatzen dute Sakanako Sorturen Eskualde Kontseilua. Ezker abertzaleko alderdiak herrietan eratu dituen Herri Kontseilu eta ordezkarri bana dago ibarreko egiturari: Unai Razkin (Arakil-Irurtzun), Izaro Otxoa de Angiozar (Uhartea Arakil), Imanol Goñi (Lakuntza), Koldo Flores (Arbizu), Xabier Ulaiar (Etxarri Aranatz), (Bakaiku), David Oroz (Urdiain), Edurne Bixiers (Altsasu) eta Jon Zufiaurre (Olatzagutia). Eta, haiekin batera, borroka instituzionalerako 2 arduradun eta eskualdeko arduraduna daude: Aitor Karasatorre, Gorka Iriarte eta Maitane Intxaurre.

Sakanako Sortuk "egoera sozio ekonomiko larriari buelta emate



Sorturen ibarreko kontseilua osatzen duten etako batzuk. UTZITAKOIA

ko lanean buru belarri sartzeko konpromisoa" hartu du, "eragile, erakunde eta sindikatuekin batera, gure bailararen etorkizuna bermatzeko". Gizarte parekide baten alde egin du eta "Sakana txi-

kitu nahi duten proiektuei alternatiba bilatzeko lanean" ariko da. Independentzia eta sozialismoaren bidera lotu nahi duten sakandarreri haiekin bat egiteko deia egin die Sortuk.

» Lakuntza

Birziklatze tailerra

Lakuntzako Udalak irakaskuntza artistikoa eta sormen pentsamendua sustatzeko tailerra antolatu du. Idoia Osés Perezek emanen du eta bi adin taldeei zuzenduta dago: 12 eta 15 urte bitartekoendako eta 16 urtetik gorakoendako. Lehenak 10:00etatik 12:00etara ariko dira tailerrean eta bigarrenak 12:15etik 14:15era. Maiatzaren 4, an 11n eta 25ean eta garagarriaren 1ean izanen da, udaletxean. Doakoa da izen ematea, baina udaletxera hots egin behar da horretarako.

» Olatzagutia



Rallyko une bat.

Sakana Motorsport-en esker ona

Martxoaren 9an Olatzagutian antolaturiko I. Olazti-Urbasa rallysprinta antolatu zuen Sakana Motorsport eskuderiak. Balantze guztiak egin ondoren, eskuderiako kideek "lanean eta laguntzaile moduan ibilitako pertsona eta enpresa guztiei eskerrak eman" dizkiete. Horrekin batera, egun hartan "olaztiarren eta edozein motatako eragozpenak izandako pertsonen, beren pazientzia eskertu" diete Sakana Motorsport-etik. Olazti-Urbasa rallysprinta Guaixe Saria iraupen luzeko proiektua dela ere aurreratu dute. Horrekin batera, eskuderiako kideek udal langileen arduradunen jarraia salatu dute. "Udal batzordearen aginduei uko egin diote behin eta berriz, rallysprintaren antolakuntzaren kalterako izanik". Kirol ekitaldiaren antolatzaileen iritziz "triste da herrirako dohainik lan egin duenari ahal izan duten traba eta oztopo guztiak jartzea". Eskuderiako kideek ulertzen duterall yak denen gustukoak ez izatea, baina "ez duguna ulertzen da, pertsona hauen partetik bai eskuderiaren honen kontrako baita herriko hainbeste kolektiboen kontrako diskriminazioa".

» Altsasu

EAJK batzokian egindako pintada salatu du

Ostegun gauean PNV lotu zure txakurrak dioen pintada egin zuten Altsasuko Batzokian. Nafarroako EAJ-PNVk pintada salatu du eta "bide politikoa eta demokratikoa" alderdi politikoa baten egoitzari egindako erasoekin nola uztar ote daitezkeengaldetu du. Jeltzaleek, aldi berean, "politika eta demokrazian denak ez du balio" azpimarratu dute. Nafarroako EAJ-PNVtik azaldu dutenez halako jarduerak "ez dute Euskadin denbora berriari aurre egiten laguntzen". "Uste genuen halako portaerak iraganeko gauzak zirela: Elkarbizitza denon artean eraikitze, bakean eta elkar errespetatuta bizitzeko eta herriak politikan eta demokrazian konfiantza izatea nahi badugu, behin betiko utzi eta baztertu behar dira betiko bortxakeriaren hazia eta hori islatzen duten pentsamendu eta jarrerak" esan dute. Halako jarduerak "behin betiko bukatzea" eskatu dute.

»

Ospakizunen inguruan

Iruzurri aurre egiteko kanpainaren barruan, festa direla eta, Nafarroako Gobernu Altsasuko Udalariri zuzendu zaio. Festa egitarauan agertu eta beste erakunde batzuk kontratatzen dituzten txaranga eta bestelakoak udalaren ardura direla adierazi zien. Kontratazio horietako BEZa eta bestelakoak egunean izan behar dituztela jakinarazi zion foru ogasunak udalari. Juan Carlos Orellana zinegotziak jakinarazi zuenez, irabazi asmorik ez duten elkarteak izan behar dutela argi erakutsi behar da. "Lehen arazo maiatzeko artisau feriarekin sortu zaigu". Zinegotziak argitu duenez, feria antolatzen ari den taldea egun baterako ez dela erakunde gisa legeztautoko esan du. "Lanean segitzeko asmoa dute, baina aurrerantzean azokako diru kontuak udalak eramanen ditugu". Horregatik, udalak Bilduk aurkeztutako 4.000 euroko emendakina onartu zuen eta talde antolatzailearekin zuen hitzarmena suntsitu egingen du.

Amaya
Okindegia-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI

948 468 755



ETXARRI

948 461 660

» Bakaiku



Altsasun egindako manifestazioa.

Errausketari buruzko dokumentalak

"Gure osasunaren alde eta errausketaren aurka mugitzen" ari dira azken aldian eta hainbat ekimengaratu ditu bakaikuar talde batek. Errausketaren gaia aztertzen duten dokumental pare baten emanaldiak iragarri dituzte gaurko eta heldu den ostiralerako. Gaurkoak *¿Fuego purificador?* du izenburua eta TVEk ekoiztutakoa da. Bestea, 3MBk plataformak egindako *Etorkizuna erraustuz da*. Emanaldiak 19:00etan izanen dira, udaltxeko areto handian.

» Arakil

Udalak 6 kontratazio eginen ditu

5 peoi eta gizarte dinamizatzaile postuak bete nahi ditu

Arakilgo kontzejuetako kultur jardueren dinamizazioaz arduratu eta langabetutako pertsonekin aholkularitza eta akonpainamendua egitea. Bi egiteko horiek izanen ditu Arakilgo gizarte dinamizatzaileak. Udalak, bestalde, Arakilen etxebizitzaren egoera zertan den jakin nahi du. Hau da, hutsik dauden etxeen kopuruak eta etxea eskuratzeko interesa duten arakildarren kopurua. Hori ere dinamizatzailearen egitekoa litzateke, Nafarroako Gobernuako Etxebizitza Departamentuarekin harremanetan mantenduz.

Edozein langabetu arakildar aurkeztu daiteke lanpostu horretara. Diplomatura bat eta EGA edo baliokidea den titulua izan behar

ditu. Baita gida baimena eta ibilgailua ere. Lana hartzen duen pertsona 5 hilabetez, lanaldi erdian ariko da Arakilgo Udalarendako eta hileroko 637,69 euro jasoko ditu. Lanean maiatzaren 15ean hasiko litzateke.

Peoiak

Bost hilabetez (maiatzaren 15etik lastailaren 15era) lanaldi osoan aritzeko 5 pertsona kontratatu nahi ditu Arakilgo Udalak. 1.005,15 euroko soldata garbia izanen dute. Zerbitzu anitzetako sailean ariko dira lanean denak, haietako bat, gainera, retroeskabadorarekin lan egingen du. Arakilen errolatuta dauden langabetuak dira lanpostu horietara aurkez daitezkenak. Beti ere, eskola ziurtagiria izan behar dute eta autoendako B gida baime-



Bi gizon Egiarretan lanean. ARTXIBOA.

na izan. Azken hori ez dutenendako bi postu gordeko dira.

Informazioa

Arakilgo udaletxean jaso daiteke deialdi horiei buruzko informazio gehiago: 948 500 101 edo ayuntamiento@arakil.infocalocal.org helbidean (Imanol).

Pisua alokatzeko

Etxeberriko kontzejuak pisuak bere egoitzaren gainean. Hilaren akaberan hutsik geldituko da.

Maiatzetik aurrera hura alokatu nahi duenak kontzeju-buruarekin harremanetan jarri beharko du: 620240719 (Javier) edo javiermartija@gmail.com.

» Altsasu

Dagoenari eusteko aurrekontua

Inbertsioetara 63.501,44 euro bideratuko dira. Hala ere, 2012ko superabita inbertsioetara bideratu lezake

Herenegun egindako bilkuran, Altsasuko Udalak aurtengo aurrekontuak onartu zituen. Bildu eta Aralarren aldeko bozekin, NaBairren abstentzioarekin eta IU, UPN eta PPren kontrako bozekin aurrera atera ziren udalaren aurtengo kontuak. Udalak 5.395.699,91 euro izaten ditu kudeatzeko.

Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak azaldu zigunez, aurrekontuak egiterakoan lehentasuna langilerari eta zerbitzuak mantentzeari emana. "Sarrerak eta gastuak koadratzen nahikoa lan izan dugu. Gauza ezberdinetarako aukera handirik ez zegoen" esan zigun alkateak eta Nafarroako Gobernuaren laguntza faltagatik edota BEZ-aren igoerak udal zerbitzuetan izan duen eraginagatik kezu azaldu zen.

NaBaiko Unai Uhaldek adierazi zuen aurrekontua "diru sarrera eta gastu korronteko aurrekontu hutsa ikusten dugu, egin diren emendekin txikiak kenduz ezta-



Udal bilkurako une bat.

baidatzeko inongo posibilitaterik gabe. Planteatzen diren inbertsioak funtzionamendu arrunterako inbertsioak direla esan dezakegu".

Hualdek jakinarazi zuen alkatetzako taldeari aurrekontuen eztabaida atzeratzea, aurreko urte-

ko diru soberakinarekin zein inbertsio finantzatu ahal ziren zehazteko. Uhaldek aurreratuzenez, Espainiako Gobernuak diru hori udal zorra murriztera bideratzea behartu beharrean aurreko inbertsiora bideratzeko aukera

eman duela. Diru soberakinarekin egin beharreko inbertsioetan alkatetzaren taldean akordioa lortzeko aukera aurreikusituzenez, NaBai abstentitu egin zen.

IUko Arturo Carreñok aurrekontuan herrian enplegua sustatze-

Inbertsioak

Mendietan	27.130
0-3ko moduluak	8.637,74
Kaleen zolatzak	8.000
Zelandiko aparkalekua txukundu	7.000
Informatika ekipoak	4.760
Kirol azpiegiturarako	3.373,7
Kirol bulegoko informatika ekipoa	2.200
Gaztegunak	1.400
Bulego altzariak	1.000

ko diru saila edo gizarte jangelakoa faltan bota zituen. Aurrekoen fotokopia zela esan eta hobe gizarteratu zitekeela adierazi zuen. Bilkuran egindako proposamenak aurrekontuetan egindako batzordeetan ez proposatzea eta, ondorioz, haietan lantzeko aukerarik ez ematea leporatu zion Aralarako Asun Fernandez de Garaialdek IUkoari. Aralarako kontu erreala zirela adierazi zuen. UPNko eta PPko zinegotziek bilkura guztian ez zuten ahoa zabaldu. PSNko bi zinegotziak eta NaBaiko Agirrebengoa faltatu izan ziren. Bestalde, koalizio horrek atzodanik zinegotzi berria du Cristobal Lanz Lapuente.

Udalak erakundeei ekarpenak

Erakundea	Aurrekontua	Udalak	Erabiltzaileak	Nafarroako Gobernuak	Besteak
Musika patronatua	355.541,4	206.604,04 %58,11	113.932,58 %32,04	33.279,04 %9,3	1.725,74 %0,49
Aita Barandiaran	979.575,93	173.585,93 %17,72	434.920 %44,4	370.080 %37,78	990 %0,10
Gizarte Zerbitzuak	626.712,54	262.232,63 %41,84	5.500 %0,88	287.202,78 %45,83	71.777,1 %11,45
Sakanako Mank	976.503,42	501.455,01 %51,35	308.336,75 %31,57	-	166.711,66 %17,08
Atabo	776.583	122.222,22(+BEZ) %15,74	515.700 %66,41	-	108.632,72 %13,99

ZERGATIK UKO EGIN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

DISKOEN, BALAZTA-PASTILLEN ETA CITROËN MOTELGAILUEN OPERAZIOA

%30 ordezko piezetan*



www.citroen.es



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN preferere TOTAL

(*) Promoziora atxikitako CITROËN zerbitzu ofizialetan eskaintza ballagarria. Indarrean dauden beste eskaintzekin ez metagarria. Kontratu kanpoko argazkia. Galdetu zure CITROËN zerbitzu ofizialean promozioan dauden piezen zerrenda.

2013/03/04TIK 2013/05/04RA.

>> Altsasu



Aurretik egin duten moduan, atzo ere udaletxe aurrean kontzentratu ziren.

Lazaro Echeverriako grebalariek epaileari kautela-neurriak eskatu dizkiote

Enpresako jabe den familia haien lana ez egiteko salaketarekin batera egin dute eskaera

Lan ikuskatzaileak martxoaren 7an lantokietara egindako bisitarren ondoren, langileek egindako salaketa aintzat hartu zuen eta "enpresak grebarako eskubidea urratu" duela ebatzi zuen. Lan ikuskaritzak mugagabeko greban dauden langileak enpresa ordez-

katzen ari dela frogatuz eman ondoren grebalariek epaitegira jo zuten. Baina auzia azaroaren 8an aztertuko da. Bitarte horretan nagusiek langileen lana ez egiteko kautela-neurriak hartzeko eskatu diote langileek epaileari.

43 greba egunen ondoren langileak "nahiko animoso daude, haien borrokan sinesten dute". Hala dio Gorka Viergek, Sakanako ELAko arduradunak. "Ez digute beste aukerarik utzi. Azkenean, enpresak proposatzen duena lan baldintzak goitik behera aldatzea da. Gainera, kaleratu dituzten langileei gutxienezko beste-rik ez diete ordaindu nahi". Gorka Viergek "guztiondako ona izanen den akordio baterako zutoinak jartzeko" eskaera luzatu dio zuzendaritzari.

ko ELAko arduradunak. "Ez digute beste aukerarik utzi. Azkenean, enpresak proposatzen duena lan baldintzak goitik behera aldatzea da. Gainera, kaleratu dituzten langileei gutxienezko beste-rik ez diete ordaindu nahi". Gorka Viergek "guztiondako ona izanen den akordio baterako zutoinak jartzeko" eskaera luzatu dio zuzendaritzari.

SAKANA

Goikoetxearen arrastoa

Juan Manuel Goikoetxea, Fardel, zena gogoan izateko ekitaldia antolatu zuten larunbatean haren adiskideek. Arantzazu izan zen altsasuarraren oroimena biziberritzeko aukeratutako toki esanguratsua eta hara 500 bat pertsona joan ziren asmo horrekin, ehunen bat altsasuar tarte-an zirela. Eta haiekin batera Iñigo Urkullu lehendakaria eta Eusko Jaurlaritzako hiru kontseilari ere (Erkoreka, Tapia eta Beltran de Heredia).

Ekitaldian, Gandiaga topaguna lepo zegoela, Iñaki Berisainek hartu zuen hitza Goikoetxearen "konpromiso erradikalki humanista" azaltzeko. Ondoren, Felix Ormazabal, altsasuarrak hartu zituen alderdi eta erakunde konpromisoen errebasoa egin zuen. Azkenik, Eduardo Urrutiak, Goikoetxeak lehen sektorearen alde zuten konpromisoaren berri eman zuen. Nikolas Seguro la frantziskotar artzainak ere hitza hartu zuen. Ekitaldia despeditzean bildutako guztiendako auzatea izan zen. Aurretik, elizkizuna.



Jendetza erakarri zuen Goikoetxearen oroimeneko ekitaldiak. UTZITAKOIA

>> Altsasu



Mahaian Jose Luis Ojer, Oskar Telletxea, Gaizka Uharte, Javier Beraza eta Jon Ugutz Bilbao, Sakanako LABeko delegatuez babestuta.

LABek mobilizazioak iragarri ditu Sunsundeguiko kaleratzeengatik

Kaleratuak berriro hartu, gauzatzen ari den iruzurra salatu, eta Murillo zuzendariaren eta Goikoetxea kontseilariaren dimisioak eskatuko dituzte

Maiatzaren 3rako iragarri du mobilizazio hori LAB sindikatuek. Horrekin batera, Sunsundegui izan duen "morroi-papera" salatzeko UGT-ren egoitzaren aurrean kontzentrazioa egingen du LABek. Sindikatuko Sakanako arduradun Gaizka Uhartek ziurtatu zuenez, "sakandarren babesik gabe gaur Sunsundegui itxita egonen litzateke. Nafarroako Gobernuak enpresa uzteko UGT

beharrezko laguntzaile izan da". Enpresak aurrera egiteko bestelako eredu bat ezartzea eskatu zuen, "ordu estrarrik eta entxufismorik gabe".

Uhartek salatu zuen Nafarroako Gobernuak 500.000 eurotan Jose Ignacio Murillori enpresa oparitu diola. Gobernuaren, zuzendaritzaren eta UGTren arteko negoziazioak enpresa batzordearen bizkarrean egin zirela eta gainontzeko sindikatuek ez zutela haien proposamenak egin eta defendatzeko aukerarik izan salatu zuen Uhartek. "Gobernua 36 milioi euro barkatzeko prest zegoela jakinda bestelako aukerak" egon zitezkeela nabarmendu zuen. LABk bere garaian enpresaren jabetzaren %51 langileen esku uzteko proposamena ekarri zuen gogora. Akordioa

Nafarroako Gobernuak enpresatik ateratzeko besterik ez duela balio berretsi zuen.

Kaleratzen inguruan

Sunsundeguiokoa "eskandalutzat" jo zuen Jose Luis Ojerrek, LABeko langileen ordezkaria. Gaineratu zuenez, "Sakanako eta Nafarroako gizarteari egiten zaion iruzurra da". LABeko kideak ziurtatu zuenez, UGTk lantegian afiliatu gehien izanda ere kaleratutakoen %90 ez du harekin zerikusirik, "zuzendaritzaren planen kontra azaldu dira, eta haietako batzuk beste sindikatuen zerrendetan aurkeztu izan dira". Horregatik, diskriminazio sindikalagatik eta Enplegu Erregulazio Espedientearen kontra salaketak jartzea aztertzen ari da sindikatuek.

Ojerrek salatu zuenez, "kaleratzeok irizpideak subjektiboak dira. Kaleratutako askoren ekoizpen balea plantillaren batz bestekoren gainetik dago". Ziurtatu zuenez kaleratzeekin ezinen da eguneko autobus kopuru jakin bategiteko helburua lortu. Pasa den urtean urte baterako kaleratutakoak, "UGTkoak ez beste" orain "langabezia galduta" berriro kaleratuak izan direla azaldu zuten prentsaurrekoan.

LABeko kideak ere gogora ekarri zuen azken 37 kaleratuen ondoren, enpresak esperientziarik gabeko langileak baldintza okerragotan kontratatu zituela eta mila lan ordu estratik gora egin zirela. Azken horregatik enpresak zigor espedientea jaso zuela jakinarazi zuen.

948 564 275



flyer edo eskuorrien eskaintza

300 ALE
80 €
1.000 ALE
170 €

SAKANA

Udaberriarekin batera, hondakinak biltzeko sistema berria

Gauzak ongi, Sakanako Mankomunitatearen asmoa da udaberriaren hondakin biltzeko sistema berria martxan jartzea. Mank-ek abiatutako parte hartze prozesuko bile-

retan sistemaren aldatetaren zergatiak azpimarratu, funtzionamendua azaldu, erabiliko diren tresnak erakutsi eta herritarren zalantzak argitu dira. Gainera,

inkesta bidez sakandarren iritzia eta ekarpenak jaso ditu ibarreko erakundeak.

Hondakin biltzeko sistema berriaren oinarrietako bat kon-

postaren aldeko apustua denez, Mank-en hurrengo pausua herrietan konposta nola egiten den irakasteko ikastaroak ematea da. Horrekin batera, udal arduradunek eta Mank-ek sakandarrendetik jasotzen ari diren informazio, ekarpen eta iritziekin hondakinak jasotzeko egurrezko zintzilikarien dimentsio-

37 bilera

Haietara 2.175 sakandar joan dira.

namendua eta haiek non kokatu erabakiko dute. Haiek jartzeko lanak Mank-ek maiatza hasieran atera nahi lituzke lehiaketara.

Jende asko, konpostatzearen alde

Konpostatzea biltzeko sistema berriaren ardatzetako bat da, bakarka edo taldeka egin daitekeena. Mank-eko informatzaile Beñat Agirrek esan digunez, "konpostatzea materia organikoa tratatzeko modurik eraginkorrenetakoa da: erabiltzaileek eta teknikoek kontrolatzen dutenez, kalitatea oso altua da; gure materia organikoarekin gure baratza, loreontzi edo lorategietan erabiltzeko ongaria sortzen dugu, hondakin zikloa borobilduz eta, gainera, tasan deskontua izango dugu".

Sakandarrek materia organikoari beste bizitza ematearen aldeko apustua egin dute. Mank-ek konpostatzea egiteko 1.653 eskaera berri jaso ditu (892 autokonpostatzea egiteko 761 auzo-konpostarako). Horiei Sakanan aurretik banatutako 300 konpostatzaileak batuta, materia organikoa beste modu batean ia 2.000 familiek aprobetxatu dute. Aurreikusten da. Mank-en eskaera berriak etengabe jasotzen ari dira. "Lehen esperientziak martxan jarri ostean, askoz gehiago apuntatuko dira. Edozein aldake-



Bikotea konpostagailu ondoan.

tarekin gertatzen den bezala, normala da hasieran kezka eta beldurrak izatea, baina behin gure bizilagunak egiten duela ikusten dugunean, gero eta gehiago animatuko gara" gaineratu du Agirrek.

Mank-ek konpostatzen ikasteko ikastaroak antolatu ditu herriz herri. Herri guztietan, gutxienez, kurtso bat izanen da, eta herriaren tamaina eta beharren arabera, gehiago. "Ikastaroetan, konpostagailua jartzeko lekurik egokienak, hara zer bota daitekeen eta zer ez, material hezea eta material lehorra zein proportziotan nahastu

Egutegia (behin-behinekoa)

Apirilak 22 Izurdiagan 11:00etan eta Aizkorben 16:00etan.

Apirilak 23 Egiarretan 18:00etan.

Apirilak 24 Etxarrenen 11:00etan eta 17:00etan, Hiri-berrin 19:00etan eta Satrustegin 19:00etan.

Apirilak 25 Irañetan 11:00etan eta 17:00etan.

Apirilak 26 Uharteko Arakilen 11:00etan, 16:00etan eta 19:00etan.

Apirilak 29 Zuhatzun 13:30etan.

behar diren, aireztatzeko prozesua zenbatetan eta nola egitea komeni den, usainak ekiditeko gomendioak eta beste emanen dira" azaldu digu Agirrek. Horretaz gain, joaten diren kezka eta zalantzak argitzen saiatuko dira. "Gainera, autokonpostajearen kasuan materialak banatzeko aprobetxatu dugu: konpostajea egiteko gidak, konpostera, kuboak eta aireztagailua" zehaztu du Mank-eko teknikariak.

Posteak eta gantxoaren dimentsionamendua

Mank herrietan banatu duen inkestaren bidez posteen eta kakearen eskaera neurtzen ari da. Herrietan ere erakustaldiak egin diren sakandarrek ekarpenak egin dituzte. Agirre pozik dago: "Kasu askotan oso egokiak eta emankorrak izan dira egin dituzten proposamenak eta sistema ezartzeko orduan kontuan hartuko dira". Horrela ari dira herrietako bilketa puntuak eta auzo-konpostatze-guneak zehazten.

Zintzilikariari dagokionez, teknikariak azaldu digu jende askok hura ikusi ondoren, kakea baztertu eta haren alde egindua. "Hasieran bazegoen posteen kontrako iritzia, baina, alde batetik, hauek Sakanan eginak direla eta hemengo arkitekturarekin bat datozela ikustean (egurrezkoak izango dira) eta, bestetik, proposatzen diren bilketa puntuetan hurbiltasuna bultzatu denez, jende askok bere hasierako aukera moldatu du". Dimentsionamendua bukatu ondoren, materialak zehaztutako tokietan jartzen hasiko dira.

Informazio bulegoak

Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Olatzagutiko bulegoak asteleheneetik aurrera, soilik asteartean eta ostegunetan irekiko dira, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Sakanako eskulana

Herri txikietan jarriko diren ekarpen-etxolak, jarriko diren auzo-konpostatze gune edo etxolak eta herri handietako larrialdi-guneak ibarreko enpresek garatutakoak dira. Baina norbaitek jarri behar du. Horregatik, Mank-ek udalei ibarreko enpresen kontaktua lortzeko laguntza eskatu die. Lanak lehiaketa bidez eman nahi ditu, eta maiatza hasieran hastea nahi luke.

Muntaketaren ondoren hasiko da hondakin biltzeko sistema berria martxan. Aurretik sakandarrek jasoko dituzte: hondakin dimentsionamenduari buruzko gida eta etxeko bilketa egutegiaren iman bat.

Altsasu

Ingurumenarekiko ardura, institututik

Iortian jarriko duten erakusketan ikastetxeari eta inguruko errekei buruzko datuak izanen dira, besteak beste

Bosgarren urtea da Aralarako Mikel Donea institutua Nafarroako Uraren Gazte Foroan parte hartzen ari dena. Parte hartze horrek irakasle mordo bat eta ikastetxeko ikasle guztiak ingurumenarekiko sentsibilizazioan bustitzea ahalbiderratu du. Aurreko ikasturteko lanaren fruitua astelehenetik maiatzaren 5era Altsasuko Iortia kultur gunean ikusgai izanen da.

Eukene Durana irakasleak azaldu digunez, lau ardatz lantzen dituzte. Birziklapena da haietako bat da. Hondakinak egoki bereizteko eta zabor kopurua gutxitzeko sentsibilizazio kanpainak egin dituzte institutuan. "Garbitzaileek lehengoarekin alderatuta aldaketa sumatu dute. Hala ere, patioan jasotako zabor kopurua ez da jaitsi", esan digu Duranak. Elkartzun kanpainetara bideratzen dituzten tupoak ere biltzen dituzte.



Aurreko erakusketa baten ikuspegia.

Urari dagokionez, ikastetxearen kontsumoa aztertu eta hura jaisteko neurriak proposatu dituzte. Aldi berean, inguruko erreketako uraren kalitatea ere aztertu dute. Energia kontsumoaren murriztea ere aztergai izan dute, klaseetan lantzeaz gain. Azkenik, mugikortasun arloan, bizikletaren sustapena bulkatu dute.

Udaberriko argazki lehiaketa

FLORES arkitektura

948 563 317
jflores25@terra.es

Iortia plaza 1-1
ALTSASU

www.arquitecturajavierflores.com

>> Saria: **SAVÁN** informatikak eskainitako liburu digitala

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel, eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan behar dira.** Argazkilarik bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri behar du: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidaltako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatua, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak ekainaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



José Zubelzu Ollaquindía

Beti zaude gurekin baina,
zein zaila den zu gabe bizitzea.

Zure familia

Eskerrak eman nahi dizkizuegu gure ondoan
egon zareten gutzietei.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko
11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua
zorion@guaixe.net-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin
Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · argi@guaixe.net
Guaixe KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIRUZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO
Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioak
LAN ESKARIA
Emakume euskalduna Sakanan lan egiteko prest. Etxeko garbitasuna, adineko pertsonak eta umeak zaintzeko prest egongo nintzateke. Telef 948- 46 03 82.

Ikastaroak
AESeK ikastaro hauek antolatatu ditu.
"2012ko lan erreformaren gaineko epaileen doktrina berria", zehazteke; "Proiektuak kudeatzeko baliabideak", 30 ordu, maiatzaren 15etik ekainaren 6ra arte; "Elkarrizketak ingeleraz", 35 ordu, maiatzaren 29tik uztailearen 3ra; "Buruko mapak. Informazioaren antolaketa optimizatzeke erremintak", 15 ordu, ekainaren 6tik ekainaren 20ra; "Nola landu aurkezpen eraginkorrak", 25 ordu, ekainaren 7tik ekainaren 21era.

UGTk ikastaro hauek antolatuko ditu.
"Soldadura TIG" maiatzaren 4tik 25ra (Iruñean); "Excel aurreratua" maiatzaren 6tik 23ra.

FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak. Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonomico.php>

Lehiaketak
5. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa. Lanak bidaltzeko epea apirilaren 19 arte izango da. Informazio gehiago: www.elkar.com/lehiaketa

"Erdialde" euskarazko idazlan laburren 6. Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: 2013ko apirilaren 30a arte. Informazio gehiago <http://euskararenlagunak.wordpress.com/>

Iruñeko gazteendako XXIII literatur lehiaketa. Iruñeko Udalak antolatuta, Poesia eta Narrazio laburra. Epea: 2013ko maiatzaren 6ko 14:00ak baino lehen.

"Pedro de Atarrabia" XXIV literatur sariketa. Atarrabiako Udalak antolatuta, idazlanak aurkezteko epea 2013ko abuztuaren 16an.

Oharrak
Guraso formazioa: autonomia lantzen III, fardel aldaketa eta esfinterren kontrola. Txioka Haur Ikastolan. Maiatzaren 2an, 16:30etatik 18:00etara. Izena eman 948- 37 30 23 edota txioka.haur.ikastola@inigoaritz.com

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea. Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Jardunaldiak: "Saldu eta irabazteko negoziaketak". Apirilaren 24an. 30 € bazkideendako eta 75 € ez direnendako. Izen ematea 948- 46 83 07 telefonon edo formacion@aesakana.com

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Urdiango eskolan negutegi. bat behar dugu, hots egin telefono honetara 948- 46 83 45.

Odol emaleak. Maiatzaren 7an Olaztin, arratsaldean.

XVI. Igartza literatura, sorkuntza beka idazle berrientzat. Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak beka hau sortu dute idazle berrientzat. 6.000 euroko diru-laguntza izango du. Epea: 2013ko ekainaren 30a. Nora bidali: kultura@beasain.net. Argibideak: Beasaingo Udaleko kultura eta Euskara saila - Loinazko San Martin plaza - 20200 Beasain. Telef: 943- 02 80 63, faxa: 943- 02 80 71 eta kultura@beasain.net

EGA. Izena eman larrezabaldek@inigoaritz.com

Nafarroa Oinez. Lagundu nahi bagaituzu, honako esteka honetan klik egin eta izena eman ezazu. Eskerrak asko! <https://docs.google.com/spreadsheets/embeddedform?formkey=dEZwZOZidIV6RUVTdHFjMklvR1c4TGc6MQ>

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Pikuxar Mus Txapelketa azkarra. Hilabetearen azken ostiralean. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, eliminatoria. www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikumus-txapelketa-azkarrak. 5 € bikoteko. Saria bi gazta.

Zientzia eta teknologiaren XI. Elhuyar Olinpiada. DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzenduta dago. Izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiago Nagore NARBARTe, Marketing saila, 943- 36 30 40 telefonon, n.narbarte@elhuyar.com eta www.elyuhar.com helbideetan.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigososefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure belexeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez,

Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin berriei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan,

JAIOTZAK
• **Eraitz Plaza Zufiaurre**, apirilaren 8an Altsasun.
• **Mikel Azpiroz Razkin**, apirilaren 11n Lakuntzan.
• **Antton Azpiroz Razkin**, apirilaren 11n Lakuntzan.

HERIOTZAK
• **Joaquin Uharte Ieregi**, apirilaren 8an Ihabarren.
• **Consuelo Irigoien Galarza**, apirilaren 11n Altsasun.
• **Jose Zubelzu Oiakindia**, apirilaren 11n Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenean Etxarri Aranatzan, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikon.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

MENDIA

ATARA SAKANAKO IKASTOLEKIN: Sakanako ikastolen mendi taldeak ibilbidea antolatu du iganderako, Ata haranera. Hitzordua: goizeko 9:30ean Etxarriko Andra Mari ikastolan. Haurren ardura norberaren guraso edo arduradunena izango da.

Futbola

3. MAILA
33. JARDUNALDIA

ITAROA UHARTE 0 - LAGUN ARTEA 11
Lesionatutako jokalariek ordezkatzeko Josu Dominguezek jubenil taldeko lau jokalaririk zela iratu zituen: Josu Palomo, Iñaki Mendieta, Ibon eta Christian Leon. Ongi aritu zen Lakuntzako taldea eta partida bukatzeaz zenean Gascok garaipenaren gola sartu zuen.

Sailkapena >>

1. Mutilbera **71 p**
11. Lagun Artea **44 p**

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - AGOITZ
(Iganbean, 17:00etan, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. muiltzoa
27. JARDUNALDIA

BERRIOZAR 2 - ETXARRI 2
DONEZTEBE 2 - ALTSASU 1
Partida oso lehiatua, Berriozar 2-1 aurreratua zegoenean, bina berdindu zuen Etxarri. Doneztebe 2-0 aurreratu zen eta nahiz eta Altsasu 2-1 hurbildu, horrela despeditu zen lehia.

Sailkapena >>

1. San Juan **67 p**
8. Etxarri Arantza **30 p**
9. Altsasu **24 p**

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI - DONEZTEBE
(Larunbatean, 16:45ean, Etxarri)

ALTSASU - ULTZAMA (larunbatean, 12:00etan, Altsasun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA
23. JARDUNALDIA

UNZITI 2 - ZALDUA 2
ERROTZAR 1 - EGIARRETA 1
Bihar derbya jokatu du Egiarretak eta Zalduek Uharte Arakilgo futbol zelaian.

Sailkapena >>

1. Elomendi **33 p**
5. Zaldua **23 p**
7. Egiarreta **20 p**

Asteburuko jardunaldia

EGIARRETA - ZALDUA (larunbatean, 16:00etan, Uharte Arakilen)

Areto futbola
SAKANAKO TXAP - IKER KIROLAK

BIHAR FINALERDIK JOKATUKO DIRA. Lau talde sailkatu dira Sakanako Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolak Sarirako: Ass Apple, Piperoxki, Arezpe eta Auzomotojorik. Bihar, larunbatean, finalerdiak jokatu dituzte Altsasuko Zelandi kiroldegian. Finala apirilaren 28an, igande, jokatu da.

Finalerdiak (bihar, larunbatean, Altsasun)

ASS APPLE - PIPEROXKI (11:00etan)
AREZPE - AUZOMOTOJORIK (12:10etan)
*Oharra: www.sakana-mank.com web gunean txapelketako sailkapen osoa.

Saskibaloia
EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA
2. MAILA AUTONOMIKOA. 2. FASEA

GAZTE BERRIAK A 64 - ALTSASU CBASK 19

Sailkapena >>

1. Cantolagua **13+4 p**
9. Altsasu CBASK **7-7 p**

Hurrengo jardunaldia

ALTSASU CBASK - NOAIN (larunbatean, 16:00etan, Altsasun)

GIZONEZKOEN JUNIOR MAILA
1. MAILA AUTONOMIKOA. 2. FASEA. 9-11 POSTUAK

LICEO MONJAR. 52 - ALTSASU CBASK 40

Sailkapena >>

1. Liceo Monjardin A **4+2 p**
3. Altsasu CBASK **1-1 p**

Hurrengo jardunaldia

ALTSASU CBASK - ARDOI (larunbatean, 18:00etan, Altsasun)
*OHARRA: Informazio +: www.guaixe.net

Mendi lasterketak

Iñaki Martiarena buruan

Uhartearra 11.a izan zen Berako maratoi erdian. 484 korrikalari heldu ziren helmugara, 27 sakandar



Sakandarrak Berako maratoi erdian:

1.	Didier Zago	1:40:49
11.	Iñaki Martiarena	1:53:45
19.	Angel Arrieta	1:58:07
20.	Jose Luis Beraza	1:58:23
23.	Ander Unzurrunzaga (lehen beterranoa)	1:59:33
27.	Jose Javier Maiza	2:00:09
48.	Karlos Zelaia	2:02:45
57.	Evaristo Noveleta	2:05:04
69.	Aritz Munarriz	2:06:58
80.	Patxi Albeniz	2:07:48
85.	Juantxo Arregi	2:08:10
121.	Alatz Agirre	2:13:49
143.	Karlos Gerendiain	2:15:56
153.	Mikel Berastegi	2:16:58
173.	Fernando Igoa	2:18:57
180.	Andoni Azanza	2:19:53
190.	Patxi Rubio	2:21:27
200.	Tomas Guirado	2:22:17
220.	Asier Turunbai	2:24:18
221.	Jose Javier Beregaña	2:24:28
250.	Iraitz Senar	2:27:38
262.	Alberto Arrizabalaga	2:28:53
267.	Sergio Goñi	2:29:01
272.	Xabier Martinez	2:29:27
283.	Maite Beregaña	2:30:31
357.	Arantzazu Larrañaga	2:39:32
456.	Iban Verdugo	3:00:55
477.	Joseba Gorritxo	3:10:49

Beste behin, arrakastatsua izan da Manttale Mendi Lasterketa Taldeak antolatutako Berako Maratoi Erdia. 484 korrikalarik osatu zuten Larun eta Manttale igarotzen dituen 21 km-ko lasterketa ezaguna. Beroa izan zen protagonista, eta Didier Zago izan zen lehena (1:40:49), Oier Ariznabarretari 2 minutu eta 26 segundo aterata (1:43:15). Emakumezkoetan, Oihana Kortazarreke zuten areriorik izan (2:02:43). Ia 4 minutu atera zizkion Aitziber Ibarbiari (2:06:22). Aipatzekoa da 27 sakandarrek osatu zutela proba. Azkarrena, 11. postuan sartu zen Iñaki Martiarena izan zen (1:53:45). Uharte Arakilgoa primerako denboraldia osatzen ari da. Aipatzekoa da ere Ander Unzurrunzaga etxarriarra izan zela probako lehen beterranoa. Bestetik, 2 emakume sakandarrek hartu zuten parte eta azkarrena Maite Beregaña izan zen (2:30:31).

OROZ MENDARON
Berako lasterketaz aparte, 130 mendi korrikalarik, egun berean III. Mendaroko Mendi Lasterketan parte hartu zuten (24 km, 1350 m desnibel +). Orozkoko Javier Olaberria izan zen azkarrena (1:58:35), Zumarragako Juanjo Igarzabali 2 minutu pasa ateraz (2:01:22). David Oroz urdiaindarrak 82.a sailkatu zen (2:48:09). Larunbatean, Xtren Apuko igoera jokatu da Zaramillon eta igandean Urnietako Mendi Lasterketa eta Aloñako Igoera, Oñatin.

Pilota

XXI. Irurtzungo Pilota Txapelketa final zortzirenetan

Asteburuko XXI. Irurtzungo Pilota Txapelketa-Lacturale Sariko final zortzirenak jokatu dira.

Oharra: emaitzak www.guaixe.net-en ikusgai.

Pilota partidak

Ostiralean, 18:00etan, Etxarriren:
Kadeteak:
-Zudaire -Ustarroz (Irurtzun) / Aldaz -Olmos (Pilotajauku)
-Oiarbide -Murua (Andoain) / Saldias -Pedroarena (Zugarralde)
-Beraza -Gorriti (Bi aizpe) / Etxeberria - De la Cruz (Irurtzun)
-Azkonbieta -Garmendia (Lapke) / Barriola -Eskudero (Ardoi)

Larunbatean, 9:30ean, Irurtzunen:
Haurrak:
-Nazabal -Goikoetxea (Aldabide) / Roldan -Barriola (Ardoi)
-Olaetxea -Alberdi (Aldabide) / Etxeberria -Galartza (Pilotajauku)
-Aizkorbe -Apezetxea (Umorona) / Olaz -Cordon (Oberena)
-Salaberria -Mariezurrena (Erreka) / Etxeberria -Ruiz de Larramendi (San Migel)
-Alberdi -Osa (Andoain) / Ugalde - Etxeberria (Oiarpe)
-Aranguren -Zubeldia (Zazpi iturri) / Baleztena -Etxeberria (Zugarralde)
-Mendibe -Arribillaga (Ardoi) / Galarza -Azpiroz (Irurtzun)
-Ruiz de Larramendi -Zubizarreta (Lapke) / Otxoa -Lazkoz (Gure Pilota)

Olaztiko 42. San Migel Binakako Txapelketarako izena ematea zabalik


Olaztiko San Migel elkarteak atzera ere pilota txapelketa antolatu du. Txapelketa maiatzetik aurrera jokatu da eta, final handia, ohikoa den moduan, Olaztiko Santa Ana festetan. Txapelketa hiru mailatan jokatu da: 1. mailan, 2. mailan eta 3. mailan. 42. San Migel Binakako Txapelketan aritu nahi dutenek izena ematea zabalik dute, apirilaren 30era arte. Bikote bakoitzak 20 euroko inskripzioa ordaindu behar du La Caixako 2100 5365 21 2100147311 kontu zenbakian eta, gero, ondoko telefonoetatik batera deitu behar du, inskripzioa konfirmatzeko: 948 38 27 22 eta 646 61 10 11 (Agustin) edo 637 83 06 41 (Alberto).

Pilota

Finalera

Irujo-Zabaleta eta Berasaluze II.a-Albisu sailkatu dira Binakako final handirako. Apirilaren 28ko Bilboko finala oso estua aurreikusten da.

Binakako finalak piztu duen ikusmina izugarria da. Orain arte Irujo eta Jose Javier Zabaleta ziren, aldearekin, faborito nagusiak, baina finalerdietan Berasaluze II.ak eta Albisuk emandako maila bikainak -22-14 irabazi zieten Irujo-Zabaletari - zalantzan jarri du hori eta finala oso estua aurreikusten da.



Atzo Bilbon entrenatu zuen Zabaletak.

Zabaleta: "finala estua izango da"
"Ez dago faborito argirik. Bi bikoteak orekatuta gaude eta finala oso estua izango da" adierazi digu Zabaletak. Egun hauetan medioak atenditzen nahikoan izaten ari da etxarrendarra, baina beti hartzen gaitu ongi. "Lasai nago, baina pentsatzen dut hurrengo astean urduritasuna nabaritzen hasiko naizela" kontatu digu. Izan ere, finalaren presioa handia izango da oso.

Berasaluze eta Albisu oso ondo ikusten ditu etxarrendarrak. "Hasieran juxtu samar hasi ziren baina orain konfiantzarekin dau-

de, ongi. Arerio latzak dira. Dena den, finala beti izaten da partida ezberdina, ez da ligaxkakoetako bat edo finalerdietako bat bezalakoa izango" gaineratu du.

Egindakoarekin pozik dago. "Debutatu eta finalera heldu. Oso pozik nago. Eta behin helduta, dena nahi duzu" dio. Lortutakoaz kontziente ote den galdetu diogu. "Txikitatik nirekin doan Ferminek esaten dit: uste dut ez zarela konturatzten noraino heldu zaren. Bestela ez zinateke hain lasai egongo. Hori izango da" dio. Zorte on.

Ezkurdia aurrera, Zubieta lanera

Buruz Buruko 2. aurretikoa

Aitor Zubieta - Merino II (ostiralean, 22:00etan, Gasteizko Ogetan. ETB1)



Zubieta edo Merino
Etxarriarra edo errioxarra izango da Joseba Ezkurdiaren hurrengo arerioa. Gaur, ostiralean, Buruz Bururako aurretiko partida jokatu dute biek, Gasteizko Ogetan (10:00etan, ETB1). Bi atzelarien arteko lehia izango da eta zer ematen duen ikusi beharko dugu. Etxarriarra konfiantzarekin dago, sasoiaren, joko onarekin eta arazorik gabe. Ea irabazi eta Buruz Bururako azken aurretikoa Joseba Ezkurdiaren kontra jokatzeko duen.

Redin
Lurrindarra eta kosmetika
948 562 452 ALTSASU

Iturgintza
Berogintza
eta Gasak

PEIO

659 286 344

Mendia

Sakanako 24. Ibilaldi Handia ate joka



Pello Alzuetak, Alicia Navarrok eta Ramon Dorronsorok aurkezten dute ibilaldia.

Apirilaren 27an izanen da, berrikuntzekin. Izena ematea zabalik.

Irurtzungo Iratxo mendi elkarte- an apirilaren 27ari begira daude, egun horretan abiatuko baita Sakanako 24. Ibilaldi Handia. Aurten bi berrikuntza inportanterekin dator: batetik, Hiru Baselizak ibilbide luzean, San Migeletik jaitsiera Atatik egingo dute Agiritik behar- an eta, bestetik, ibilbide laburra goitik behera eraldatu dute, Gaztelu-Larrazpil ibilbidea prestatuz. Horrez gain, lehendabiziko aldiz ordutegiez berdinean abiatuko dira bi ibilbideak: ibilbide luzea goizeko 6:00etan eta laburra 7:00etan. Erabakia hasieran egoten den

pilaketa ekiditeko hartu dute. Proba ez lehiakorra da eta Nafarroako eta Euskal Herriko mendi ibilbideen zirkuituan sartuta dago.

Nobedadeak

Aldaketak mendizaleen iradokizunak aintzat hartuta egin dituzte. "Ibilbide luzeko Aralarko jaitsiera Agiritik egitea erabaki genuen azken bi ediziotan, bertatik pasatzen den GR-20 ibilbidea sustatzeko. Baina atzera ere Atatik jaitea proposatu digutenez, hala egingo dugu" azaldu digute.

Bestalde, goitik behera eraldatu dute ibilbide laburra. "Mendiza-

leek esaten ziguten ibilbide laburra izateko oso luzea eta gogorra zela, 40 km ingurukoa. Horregatik, kasu egitea erabaki dugu eta Gaztelu-Larrazpil izeneko ibilbidea prestatu dugu, osopolita. Hasieran, Gaztelu igotzen da, gero, Ekaitik jaisten da eta Etxarren eta Itxasperrietik barna Madotzera igotzen da, bertatik Larrazpilera joanez. Bi Aizpetatik txikiena inguratzen da, Etxeberrin egin duten ibilbide eta zubira agertuz, eta bertatik Irurtzuna" azaldu digute.

Partaidetza

Iraxoko Pello Alzuetak, Ramon Dorronsorok eta Alicia Navarrok adierazi dutenez, 800 pertsonenako hornidura prestatu dute. "Gehiago apuntatzen badira ere ez dago arazorik, edizio batean 1000 pertsona baino gehiago aritu baitziren. Mol- datukoginateke". Euren ustetan jendea eguraldi aurreikuspenetara zain dago inskripzioa egin aurretik. "Datorren astean inskribatuko da jende gehiena. Jendea aurretik inskribatzea hobereena da, baina egunean bertan izena emateko aukera ez dugu baztertu" adierazi dute.

Aurretik izena emateko

www.iratxoelkartea.com webgunean piri- laren 24ra arte (10 euro). Egunean bertan ere izena emateko aukera izanen da (12 euro).

Ibilbide handia: Hiru baselizak (55,6 km. 3000 m desnibela)

6:00etan: Irurtzun - Izurdiaga - Urritzola - Gazteluko Lepoa - Txurregi - Iturria - Euskal Herriko Erdigunea - Uharteko Ataka - San Donato - Aritza - Uharte Arakil - San Migel santutegia - Madotz - Larrazpil - Goldaratz - Kaxerna - Trinitatea - Irurtzun.

Ibilbide txikia: Gaztelu-Larrazpil (31,2 km. 1150 m desnibela)

7:00etan: Irurtzun - Izurdiaga - Urritzola - Pagadia - Gaztelu - Gaztelu lepoa - Ekaiko pista - Ekai - Etxarren - Itxasperri - Madotz - Larrazpil - Goldaratzeko bidea - Etxeberriko bidegurutzea - Zubi berria - Irurtzun.

Tiro olinpikoa

Helburua: Espainiako Txapelketa

KALIK APIRILAREN BUKAERAN GRANADAN JOKATUKO DEN FOSO UNIBERTSALEKO ESPAINIAKO TXAPELKETAN EGOTEKO AUKERA ASKO DITU

Apirilaren 27an eta 28an, Granadan



Apirilaren 27an eta 28an jokatu da, Granadan. Goizean hasi eta ia gauz bukatzen dira tiraldiak. Larunbatean, 100 plater hautsi behar dira eta, igandean, beste 100. Oso luze eta gogorra egiten da, eta kontzentrazioa mantentzea ezinbestekoa da. "Lehiaketa maila izugarria da, puntako tiralariek aritzen dira. Egun guztia ematen duzu tiro zelaian eta oso inportantea da burua hotz mantentzea, tiraldietan adi egotea, baina gero deskonektatzen jakitea eta ez neketa. Duela bi urte Espainiakoan egon nintzen lehendabiziko aldi- an urduritasuna eta presioa sumatu nuen eta behera egin nuen. Orain esperientzia gehiago dut eta faktore horiek gehiago kontrolatzen ditut" adierazi digu.

Jose Carlos Jimenez "Kali" altsasuar- rarak urte asko daramatza tiro olinpikoan, foso modalitatean. Berezi- ki foso unibertsalean jarri du arreta. Foso unibertsaleko 3. mailan dabil altsasuarra eta denboraldia bikain hasi du. Kalik hori borobiltzea espero du: apirilaren bukaeran jokatu den foso unibertsaleko Espainiako Txapelketarako klasifikatzea, Nafarroatik. Horretarako igandean Baldorban jokatu den Udaberriko Trofeoan bere maila- rik onena eman beharko du.

Nafarroan foso unibertsaleko 14 tiraldi antolatu dira, eta Nafarro- aro Tiro Olinpikoko Federazioak tiraldi horietan egindako 9 sailka- pen onenak hartuko ditu kontuan Espainiako Txapelketara bidaliko duen ordezkaria aukeratzeko. Igan- deko Baldorbako azken tiraldiaren faltan, momentuz Kali da onena, 115 platerekin. Bigarrenak 113 pla- ter ditu eta hirugarrenak 110. "Badi- rudi ez dagoela apenas distantzia- rik baina tiroan plater bat mundu bat da. Baldorban nire maila ema-

ten badut lehendabizikoa buka- tzea lortuko dut eta bekadun moduan Espainiako Txapelketara joatea" adierazi digu Kalik.

Altsasuarra sasoi betean dago, emaitzak alde, puntako mailan eta bolada onean. "Orain arteko tiraldietan ongi aritu naiz. Duela gutxi Ventafrian 25 platerko bi tiraldi egin nituen. Bolada onean nago eta Espainiakoan aritzeko esperantzarekin" gaineratu du.

Krisiaz

Krisia asko nabaritzen ari dela aipatu digu. "Bekak kendu dituzte. Lehen federazioak kategoria bakoitzeko bi tiratzaile onenak bidaltzen zituen Espainiako txapel- ketetara eta aurten kategoria bakoit- zeko bakarra. Babesleak lortzea ere geroz eta konplikatua da. Kirol garestia da: eskopeta, kartu- txoak, tiro zelaiak... Zorionez, hain- bat laguntzaile ditut, kartutxo kaxa batzuk lortzea ahalbidertzen dida- tenak. Norbaitek esku bat botako balu..." azaldu digu tiratzaileak.

SAKANAKO XXIV. IBILALDI HANDIA

2013ko Apirilaren 27a
Goizeko 6:00etan: Luzea
7:00etan: Motza

Irurtzun · Iratxo Elkartea www.iratxoelkartea.com email: iratxomendi@gmail.com

• Izenak ematea apirilak 1etik 24ra gure web orrialdean

ANTOLATZALEA: Iratxo Elkartea

LARUNTZALEAK / Colaboradores: Iratxo Elkartea, Nafarroako Gobernua, SURA, Aritza, Kaiku, Iratxo Elkartea, can, X

KORONKARDEAK / Medios de comunicación: GARA, berria, Guaixe.net, beleixe, Noticias

LARRAZA ARDOAK

Tel.: 948 460 014



Zugarreta 2
Etxarri-Aranatz

PPSOE,

ETB digitala

Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

asi arreta eta orientazio psikologikoko zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA

- Nerabeak, helduak, familia
- Orientazioa
- Ikastaroak

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
948 467 354 - 669 367 422

MOTZEAN



Berdud eta Maiza Azkoitiko duatloian

XIV. Azkoitiko Duatloian (10 km korrikan, 40 km bizikletan eta 5 km korrikan) 168 duatleta zeuden izena emanda eta Julen Larruzea izan zen azkarrena (1:52:39). Sakana Triatloi Taldeko Urko Berdudaltsasuarra 20.a heldu zen helmugara (2:02:44), 23 urtez azpiko 4.a, eta Juan Luis Maiza 34.a (2:07:28).

ARBIZUKO DUATLOIAN IZENA EMATEA ZABALIK

Bihar, larunbata, San Adriango Duatloia jokatu da, Nafarroako Txapelketa izanen dena, eta Arrigorriagako XVI. Duatloia (12 km-75 km-12 km). Bestalde, gogoratu apirilaren 27an jokatu dela XVII. Arbizuko Duatloia.

Izena ematea zabalik dago www.navarrratriatlon.com web gunean.

Iban Resano Urrezko Aizkoratik kanpo

Igandean, Leitzak Urrezko Banako Aizkorako 5. kanporaketa hartu zuen. 12 aizkolaria lehiatu ziren, Iban Resano dorrobarra artean. 12 aizkolaria elkar kanporatzen joan ziren, enbor bat moztera neurtuz, bukaran hiru geratu arte: Julen Kañameres, Arkaitz Jauregi eta Mikel Larrañaga. Horiek lortu zuten, hain zuzen, hurrengo kanporaketa aritzeko txartela. Tamalez, Iban Resano kanpoangelditu zen. 3. fasean Mikel Larrañagak dorrobarra menperatu zuen, eta 4. fasean ere, galdu egin zuen Resanok, Eneko Otañoren kontra.

Igeriketa bihar, Altsasun

Nafarroako Kirol Jolasen Igeriketa Promesen Ligako benjaminen 6. jardunaldia jokatu da bihar, larunbatean, Altsasuko Zelandi kiroldegiko igerileku estalietan, 17:00etan.

Mendi txirrindularitza

BTT festa Izurdiagan

IZURDIAGAK RURAL KUTXA BTT KOPAKO 3. PROBA HARTUKO DU IGANDEAN. 10:30EAN NKJEN KATEGORIA TXIKIKO PROBAK JOKATUKO DIRA FUTBOL ZELAIAN ETA 11:00ETATIK AURRERA PROBA NAGUSIA ZIRKUITUAN

Iturrotz Txirrindularitza Taldeak antolatuta, Izurdiagak Rural Kutxa BTT Kopako 3. proba hartuko du igandean, San Juan BTT Saria. Lehenik eta behin, goizeko 10:30ean, kategoria txikikoendako probak jokatu dira futbol zelai inguruan prestatutako zirkuituan. Ordu erdi beranduago, 11:00etan, federatuen proba nagusia abiatuko da Izurdiagan prestatutako 5,5 km-ko zirkuitu ikusgarrian.

Zirkuitua gogorra da, maldez betetako. Proba nagusia San Juan kaleko iturriko plazatik abiatuko da. Iturri zahar bidetik aurrera egin, hilerritik gertu aurrera eginen dute, Bordabiskier parajea. Zirkuitua Zapardi eta Zarrasti



Patxi Cia da Kopako burua.

mendietan barna sartuko da eta Larrantxoko jaitsieratik San Juan kaleko iturriko plazako helmugara hegoalde iritsiko dira.

Kategoria txikiak

10:00etan, futbol zelaietan: Hasi berriek 3 itzuli eta kimuek 5 itzuli.

Proba nagusia

10:30ean, 5,5 km-ko zirkuituan: Haurrek itzuli bat, kadeteek 3 itzuli, juniorrek, emakumezkoek eta beterranoek 4 itzuli eta eliteek, 23 urtez azpikoek eta masterrek 6 itzuli 31,8 km).

Rural Kutxa BTT Kopako proba izanik, puntako bikerrak espero dira, Patxi Cia, Diego Latasa, Olatz Odriozola, Matias Rekalde, David Garcia eta beste. Jakina, txirrindulari sakandarrak lanean ikusiko ditugu, Mikel Irigoien eta Mikel Otxoa. Izurdiagak igande goiz pasa polita egiteko aukera eskaintzen du.

Txirrindularitza

Urtasunek arnasa eman dio Euskalteli

Pablo Urtasunek sentsazio onak zituen Gaztela Leongo itzulirako. "Aukera honek ihes egin dit, baina garaipenagatik borrokatzeko hankak baditudala konturatu naiz eta optimista naiz. Gaztela eta Leongo Itzulirako morala ematen dit honek" esan zuen Zornotzan garaipenak ihes egin zionean. Eta bete betean asmatu zuen Pablok. Izan ere, Gaztela Leongo Itzuliko lehen etapan gailendu zen urdiaindarrak. Rural Kutxako Francesco Lascari eta Movistarreko Enrique Sanzi hartu zuten aurre Pablo Urtasunek, Euskaltelek egindako talde lan bikaina borobilduz. Gainera, lideraren maillota eskuratu zuen urdiaindarrak eta lider moduan hartu zuen irteera hurrengo etapen. Urtasunek bere ibilbide profesionalerako 5. garaipena lortu zuen eta Euskaltel-Euskadiri arnasa eman zion. Izan ere, talde laranja kosta egiten ari zitzaien denboraldiko lehen garaipena lortzea.

Pozik zegoen Pablo. "Oso pozik gaude. Garaipen hunkigarria eta polita izan da, aspalditik espero genuena. Badakigu ongi egiten



Urtasun taldekideekin, Azanza eta Verdugo tartean, garaipena ospatzen. EUSKALTEL

dugula lan eta emaitzak iritsiko zirela, baina emaitzarik lortu gabe presioa sumatzen duzu. Horregatik garaipen hau oso garrantzitsua da, konfiantza eta lasaitasuna ematen digulako" adierazi zuen Urtasunek bukaeran. "Azanzak eta Verdugok oso ongi egin dute lan azken 4 km-etan" azaldu zuen.

Gaztela Leongo 2. etapa Euskalteleko Juan Jose Lobatok irabazi zuen. Urtasunek aurreikusitako moduan, esprinter puruendako

etapa zen, eta, horregatik, urdiaindarrak Lobatoren alde egin zuen. Baina hirugarren eta azken etapen, Movistarreko Ruben Plaza iritsi zen bakarrik helmugara, Gaztela Leongo Itzulia irabaziz. Pablo Urtasun 4.a izan da, 11. segundora.

Egoi Martinez eta Erbiti Liejan

Igandean Ardeetako hirugarren eta azken klasikoa jokatu da: Liege-Bastogne-Liege ezaguna. Movistar Team taldeko Hiriberriko Ima-

Urtasunen bostak

Profesionalen 5 garaipen ditu urdiaindarrak: 1. Gaztela Leonen (2013, 1. etapa); 1. Britainia Handiko Tourrean (2012, 7. etapa); 1. Asturiaseko Itzulian (2010, 1. etapa); 1. Sotavento Algarvio Voltan (2008, 2. etapa); eta 1. Asturiaseko Vueltan (2008, 5. etapa).

nol Erbiti bertan ariko da, asteazkenean Flecha Valona jokatu eta gero. Euskalteleko Egoi Martinez ere Liegen egonen da.

Euskalteleko Sakanako lau txirrindulariak -Martinez, Verdugo, Urtasun eta Azanza- maiatzaren hasieran hasiko den Italiako Giroa prestatzen ari dira.

Zornotzakoa Benitorenako

Rural Kutxa talde sakandarreko Migel Angel Benito gailendu zuen 23 urtez azpiko Zornotzako Uda-berri Sarian. Berriatuako San Gregorio Sarian Rural Kutxako J. A. Rubio hirugarrena izan zen.

Nafarroako Master Itzulia Irurtzunera

Igandean 2. etapa jokatu da Irurtzunen, 11:00etan

Larunbatean eta igandean jokatu da Master mailako Nafarroako Itzulia. Tartean, txirrindulari sakandarrak ariko dira. Larunbat goizean, 10:00etan, Monteagudon hasi eta despedituko den 82 km-ko lasterketa jokatu da, eta arratsaldean 10 km-ko erlojupekoa, Monteagudon. Igandean, Irurtzunen hartuko du bigarren etapa, 11:00etan. Txirrindulariak Izurdiagatik barna Ororbia eta Astrainera helduko dira, gero, Perdongo gaina igo (2. maila), Garesera jo, Girgillano (2. maila) eta Genbe (1. maila) igo eta, atzera ere, Izurdiagako bidea hartzeko, Irurtzuneko helmuga helburu (90 km).

ASTEBURUKO PROBAK

Juniorrek igandean lasterketa dute Lizarran, 10:00etan (83 km). Afizionatuek larunbatean 10:00etan proba dute Lazkaon (130,8 km) eta, igandean, 10:00etan, Duranan (122 km). Bestalde, igandean, afizionatuen Espainiako Kopako 6. lasterketa jokatu da: Murtziako Alcantari-llako Guerrita Trofeoa. Rural Kutxak talde onena izaten jarraitzen du.



maríaeugenia
Arrainak

www.pescaderiamariaeugenia.com

Arratsaldez zabalik

Lortu deskontuak
gure txartelarekin!



Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722

El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

Antzerki musikaletik gertu

Larunbatean, 19:30etan eta 22:00etan Altsasuko lortia kultur gunean

Ortiako antzerki tailerrak, atzera ere, Birjiñe Albiraren begiradapean lan egin du. "Oso ongidoa, oso langileak direlako; lan eta lanari dira, egunero entseatzen", aitortu digu Albirak, horregatik, "primera-ko" emanaldiak espero ditu.

Tailerra lastailean hasi zen eta, orduan, antzezlaneko 11 pertsonaiak sortzen hasiziren. "Gehienek joan den urtean parte hartu zuten, aurreko pertsonaietatik urrun egoten saiatu gara. Poliki-poliki lantzen hasi ginen, musikarekin lotu



UTZITAKOA

genuen dena". Abiapuntua, beti ere, Albirak emandako ideia bat izan zen, "eta bakoitzak nahizuen a Gehitzen jarraitu zuen".

Pertsonaiak sortu ondoren, hiri handi batean dagoen El Sur taberna sortu zuen taldeak, antzezlanaren izenburua ere badena. Han per-

Antzezleak

Amelia Lapuente (Luci), Patru Aracama (La Reina de la noche), Elena Aldasoro (Loulou), Natalia Martin (Eloise), Puy Senar (Juanita), Julia Alvaro (Reyes), Iñaki Lopez (Ricky Star), Olivi Galparsoro (Kakun), Marisol Lizarraga (Pamela), Marta Diego (Agustina) eta Erkuden Palacios (Mara).

tsionaiak biltzen dira. "Batzuk arrosa, ustez arruntak direnak baina ez direnak eta, besteak, modan daudenak". Eguneroko gaiak jorratuko dituzte, umore handiz. Batzuetan beltza, inuzentea bestetan. "Baina puntu ilun bat" badagoela ere aurreratu digu Albirak.

di-da >>

LITERATURA

IRAKURZALETASUNA UREZTATUZ

Liburuaren eguna dela eta Altsasuko liburuzainek ura ardatz hartuta programazio berezia antolatatu dute. Hala, astearte eta asteazkenean, 17:30etik aurrera, 6 urtetik gorako haurrek uraren inguruko ipuin bat eta eskulanak egiteko aukera izanen dute (aurretik izena eman). Amaitzeko kideak ariko dira haiekin.

Ostegunean, berriz, 19:00etan kultur gunean, Mikel Alvira idazlea etorriko da bere *El silencio de las hayas* liburuaz hitz egitera eta irakurleekin iritziak trukatzera. Programazioa Lur Usabiaga ipuin kontalariaren saioarekin despedituko da ostiralean.

LEHIAKETAK

IRURTZUNEN ETA ARBIZUN FESTETARAKO KARTEL BILA

Irurtzango Udalak aurtengo festak iragarriko dituzten kartelak aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Edozeinek parte hartu dezake, bi mailatan: 14 urte artekoak (150 euroko saria) eta helduenean (400 euroko saria). Lanak maiatzaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira. Informazio guztia: www.irurtzun.es. Arbizuko festak iragartzeko lehiaketan edozeinek parte hartu dezake, edozein teknika ibilita. A3 tamainako lanak aurkeztu beharko dira (200 euroko saria). Lanak garagarriaren 1erako aurkeztu beharko dira. Informazioa: www.arbizu.info.

Bere txapela

Bigarren urtez jarraian Julio Sotok Euskal Herriko Bertso Afari Txapelketa eskuratu zuen. 6 bertsolari Etxarri Aranazko Karikesteu elkarte lepo bete zuten bertsozaleen aurrean aritu ziren. Gai jartzaileek egindako lanak

despedituta sailkapena aurrekotik azkenekora horrela gelditu zen: Julio Soto, Maddi Ane Txopereña, Egoitz Gorosterrazu, Arrate Illaro, Oier Arbina eta Amaia Iturriotz. Aurreneko biak, Soto eta Iturriotz, pasa ziren buruz burukoa jokatzera eta gorritarrak joan den urteko txapelari eustea lortu zuen.



UTZITAKOA

Sakanako neguak badu argazkia

Guaixe astekariak antolatutako Neguko Argazki Lehiaketa Beñat Jauregik eskuratu du (ikus azken orrian elkarrizketa). Berarendako izanen da Ramos dendak emandako MP3a. Hala ere, argazkien kalitateagatik, lehiaketako



epaimahaiak nahikoa lan izan zuen eta, horregatik, Mainer Uharteri, Eduardo Uharteri eta Jonathan Rodriguezi aipamen berezi bana ematea erabaki zuen. Argazkiak www.guaixe.net web orrian ikus daitezke.



Orain, udaberrikoa Bierrik Fundazioak Udaberriko Argazki Lehiaketa antolatu du orain. Sakana eta udaberria, bi gai horiek hartzen dituzten argazkiak onartuko dira. Parte-hartzaileek euren lanak maketazioa@guaixe.net



e-postara bidali beharko dituzte garagarriaren 18aren aurretik. Argazkiaren izenburuarekin batera, non eginga dagoen eta harremanetarako telefonoa eman beharko da. Saria: Saván Informaticak emandako liburu elektronikoa.

bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

Aralarko trikuharriak

Azken aldi honetan, Alvaro Mundiñanomargolari etxarriarri esker, Sakanan egiten ari diren ikerketa arkeologiko batzuen berri izan dute. Harlauzak eta erromatarren garaiako edota aurreko errotrariak aurkitzen ari dira Olazti aldean. Oso bereziak dira eta Euskal Herrietik kanpo era horretako gutxi batzuk besterik ez daude. Zamartzen lanetan daude oraindik ere, eta Etxarri aldean baskoien hiri bat izan daitekeena adituaren bisitaren zain dago. Margolari bati esker izan dute honen berri, eta ez da harrizkoa. Izan

ere, oraingo arkeologoen, egungo teknologia berriei bizkarra eman gabe, aurrekoen modura jokatzeko dute, eta beren aurkikuntzak erarik egokienean aztertzekeko margolarien beharra dutela dirudi. Argazki batek ez omen du nabarmen-tzen ikerleak azpimarratu nahi duena eta, agian, horretarako, argazkiak baino gehiago, eskuz egindako irudi batek egin dezake lan hori. Izan ere, arkeologo ospetsuen artean margolari trebeak izan ditugu gurean, Iturralde y Suit jauna bera adibidez, Aralarko trikuharrien akuarelak margotzen maisua izan zena.

Arkeologiarako eremu zabala da Sakana. Arterako ere bai, noski. Telesforo de Aranzadi eta Florencio de Ansoleagak, Aralarko bost trikuharrien esplorazioa egin zuten. Trego-arrri edo Tregu-arrri hauetako batetik bestera joateko kilometro gutxi zeuden arren, ikerleek zailtasun handiak aurkitzen zituzten haietara hurbiltzeko. Orduko haitz tokiak, arroilek eta lurraren mal-kartasunak zaildu egiten zieten bidea.

Inguru haietan galtzeko arriskua zegoen, urrats guztiak ongi neur-tu behar ziren oztopo ez egiteko eta itzulipurdika pirritan amildegie-

tara zuzenean ez joateko. Beste batzuetan, zamariari bidea ireki behar zitzaion aizkora erabiliz, ikerleek umorez esaten zuten bezala "Ecce-Homo" edo Absalon bat bezala ez bukatzeko, buruko ilaje urriarekin zuhaitz baten abarrei loturik, trabaturik eta koropilaturik. Bestalde, ikerleak, behi pareak gurdia harkaitz malkartsuetatik goranola bultzatzen zuten ikustean harrituegiten ziren. Gurdi karrankari haiek, ardatz birakaria eta erradiorik gabeko gurpil beteak zituztenak. Guztiz miretsita zeuden gure aitona-amonon adorea eta lanaz. Horretan ere, arkeologia eta artea. Literatura.

Ikerketa hauetatik sortu zen liburua. Nafarroako Aldundi Forala eta Probintziala Txit Gorenak argitaratu zuen 1915ean. Orain ez dakit honelako lanak argitaratu zituen: bost trikuharri horietako ezeini ez zioten "Reyno de Navarra" izena eman, Panplonagañe, Aranzadi, Otsapasaje, Arzabal eta Zubeinta baizik. Gainera, jakina, ikerketa sustatzeko ez dute diru nahikorik izango, murrizketen garaian bizi gara eta dirua, honez gero, Sanz, Barcina eta gainerako poltsikoetan egongo da bero-bero. Horretarako ez da arkeologia behar, baina artea behar da!



Arangoa Gaiarren

Bihar Zirkuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da eta, horregatik, Iruñeko Gaiarre antzokian programazio berezia prestatu dute, 19:00etatik aurrera. *Sondecirco!* izendapena eman diote “Nafarroako zirkuaren festa handia” izan nahi duenari. Zirku arteen 15 emanaldi bildu dira biharko ospakizuneari. Horietako bat Lorena Arangoak sortu duena da. Clowm irurtzundarrak *Lomioestuyo* izenburua duen emanaldia eskainiko du. Umetxoak bizitzaren oparia ote diren gal-detuko du clown-ak.

Heriotza eta adiskidetasuna batzen dituen tragikomedia

Larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean

Carpe Diem: *Amigos para Siempre* (Amigos hasta la muerte) adiskidetasunaren mugen inguruan egiten den hausnarketa antzeztu bat da. Nacho, Angel eta Maria (Sara Cozar, Iker Galartza eta Joseba Usabiaga). Bi gizon eta emakume bat eta jakina... gutxienez pare bat maitasun istorio. Hiru lagun, betiko lagunak, betirako lagunak... edo ez.

Zerbait gertatuko da. Larria izango da beraien adiskidetasuna kolokan jarriko badu. Zer egingo zenuke zure bikoteak zure lagun onenarekin alde egingo balu? Biei barkatuko zenieke? Bietako bati? Zeini? Eta heriotza tartean bada... dena ezberdin ikusten da? Edozer barka zenezake maitasunagatik? Eta adiskidetasunagatik? Min egitea baino egia ezkutatzeari hobe da? Zein da zure aukera? Hil arte bizi.

Arakildarrak eta irurtzundarrak Gazteak Plazara Topaketan

Bihar eguerditik aurrera Atarrabiako kultur etxean sakandarren sorkuntza ikusgai

Euskara Kultur Elkargoak (EKE), gazteek sortutako euskarazko proiektuak sustatzeko, *Gazteak Plazara* deialdia egin zuen 2011 urtean. EKEk bost beka banatu zituen eta haietako bi sakandarrek jaso zituzten: Errizoma eta Arakil aldeko hitza taldeak. Gazteen arteko kultur proiektuak trukatu eta partekatze-gune bat sortzeko asmoz, bihar eguerditik aurrera Atarrabiako kultur etxean Gazteak Plazara I. Topaketa antolatuko du EKEk. Haren bidez, gazteek egindako euskarazko sormen proiektuei sostengua eman nahi diete. Topaketan, joan den urtean egindako lanak ezagutzeko aukera izanen da.

Urtekaria

Arakilgo Hitza taldekoek, Arakil, Irurtzun eta Larraungo hainbat herriren 2012 urtearen erreposoa jasodute urtekarian. Maialen Uharteko ihabardarrak azaldu digunez, batez ere, kultur arloko berriak izan dira jasodutuztenak. “Kolorezko 50 orritan, urtaro bakoitzeko elkarrikeria bat eta erreportaje bat sartu ditugu. Argazki collage batekin batera”. Irudiari aparteko garrantzia emandiot. Urteakabera-hasieran 1.500 ale banatu zituzten.

Bihar, Atarrabian urtekaria nola egin zuten azalduko duen bideoa erakutsiko dute. Uharteko bera izan zen kazetari lanaren ardura hartu zuena eta Beñat Jauregi (Etxarren) Unai Razkin (Irurtzun) eta Haizea Fernandez de Muniaín (Eraso) informazioa biltzeaz eta argazkiez arduratu ziren. Maketazioaren atze-



an eta, argazki askotan, Urko Mauduiten esku trebea dago. Uharteko azaldu digunez, esperientzia errepikatze asmoa dute. Bekarik gabe, finantzabideak bilatzen eta lan taldea zehazten ari dira.

Errizoma

Abenduaren 29an mustu ondoren, *Errizoma* lana atzera ere ikusteko aukera izanen da bihar Atarrabian. 5 diziplinatan aritzen diren 5 egileren lanaren fruitua da *Errizoma*.

Lorena Arangoa (antzezlea, Irurtzun), Itziar Matxain (argazkilaria, Irurtzun), Ibai Viñas (margolaria, Irurtzun), Arkaitz Nagore (musikaria, Iruñea) eta Beñat Romero (ikusentzunezkoak, Bilbo) ikerketa bategitera bildu ziren: nor bere diziplinatik abiatuta talde gisan nola lan egiten zuten ezagutzeko. Abiapuntua Artzeren *Gogo eta gorputzaren zilborrestea* poema izan zuten. Ikerketa proiektio batean biltzeko gaitasuna izan zuten eta hori erakutsiko dute.

Zeramika adierazpide gisa

Gaur eta bihar, 16:00tik 20:00etara, Iturmendiko udaletxean



Luisa Ortizek Handkraft Artisanu Zeramikoa tailerra du Iturmendin. Malagan goiziklo batean zeramika teknikak ikasitakoa da. Azken 3 urteetan sortutako lanak jarriko ditu ikusgai Iturmendin asteburuan. “Zeramikak dituen aukerak erakusteko balioko du” esan digu Ortizek. Ohiko zeramikazko ontziez gain, bitxigintzako piezak, eskulturak eta bestelakoak izanen dira ikusgai. “Zeramikarena hemen gauza berria da, jendeari interesatu ahal zaiona” azaldu digu Ortizek, “jendeak zeramikak eskaintzen dituen aukerak ikus ditzala”. Bere lanak erakutsiko ditu, baina etorkizuneari ikastaroak ematea ez du baztertu.

Dantza, oroimenerako bide

Gaur, ostirala, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Dantza sorkuntza euskaraz mustuko da

Hierbaroja konpainiak Mu-To, Txinaraino tunel bat zulatuko ikuskaria ekarriko du Etxarri Aranazera. Laida Azkonak zuzendu eta interpretatzen duen lana oroimenari buruzko azterketa eszenikoa da. Banakoaren oroimena eta oroimen kolektiboaren xoko-moko guztietan barna egindako bidaia proposatzen digu Mu-To-k. Bidaia horretan, ikusleen oroitzapen, esperientzia eta ahanzturak biltzen dira, norbere oroimenean murgiltzeko. Hala, ikusentzuleak euren bizipenen bitar-



tez hautemateko atondutako performancea, hain zuzen.

Dantza jaialdia Irurtzunen

Larunbatean, 19:00etan Irurtzungo frontoian

Udaberriko Dantza Jaialdia antolatuko du Orritzek biharko. Hueskako Esplús eta Lasarte-Oriako dantzariekin batera ariko dira Orritzeko kideak. Guztiak herrian barna kalejira egingen dute 18:00etatik aurrera, eskolatik abiatuta. Hura despeditzean, hasiko da dantza jaialdia. Jaialdiak ondorengo afarian eta Pikuxar euskal txokoko folklore festarekin izanen du segida.

Aurreko asteburuan, bestalde, Orritz, Galtzorratz eta Elai-Alai taldeetako dantzariak Iruñeko Folklore Egunean parte hartu zuten, 80 bat dantzari guztira.

Tangoaren liluraz gozatzeko

Igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean

Trio Palatino Roberto Casadok (txirula), Carlos Secok (biola) eta Sergio Larrionek (gitarra) osatzen dute. Haien doinura Val-

dik eta Gisellek dantza egingen dute. Astor Piazzolla musikagile argentinarraren bikainak egindako musika entzutearekin batera, tango dantzaren magia gozatzeko aukera da Escena dantza jaialdiak Irurtzunera ekarriko due-

na igandean.

Ikuskizunak, tangoak Argentinan egin duen bilakaeraren berri emanen du: burdeleko musika moduan izandako hasiera haiek, “kafean” edo nightclubetan entzuten zenekoa, hirurogeiko hamarkadan... Doinu bakoitzari dagozkion dantzak eta jantziak erakutsiko dituzte dantzariak.

ANTZERKIA

EL SUR
IORTIAKO ANTZERKI TAILERRA
APIRILAK 20 · 19:30/22:00

Iortia Antzerki Tailerra osatzen duten hamar kideek antzerki musikaletik gertu dagoen antzezlana prestatu digute. Eguneko gaiak lantzen dituzte umore handiarekin. El Sur hiri handi bateko taberna da eta era guztietako jendea elkartzen da bertan. **Oso gomendagarria!**

Frontoiko beharbidetza: 31803 Altsasu 948664272 www.acebook.com/iortia

LOS CROODS
IGANDEA 21 17:00

LA NOCHE MAS OSCURA
OSTIRALA 19 22:00 IGANDEA 21 20:10

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 68%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 13%	euria: 13%	euria: 8%	euria: 13%
Min: 6 Max: 10	Min: 3 Max: 11	Min: 1 Max: 13	Min: 3 Max: 11	Min: 4 Max: 16	Min: 7 Max: 22	Min: 10 Max: 21

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	28.5	6.7	5.5
Altsasu	27.5	7	6
Aralar	20.4	1.3	6.6
Urbasa	24	4	0

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
25	2	10	18

Acrylicolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Behar duzuna iruditan, ZIZTU BIZIAN!

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

diseinua inpresioa

948 564 275

argi@guaixe.net

>> 11 galdera

Beñat Jauregi

Argazki txapelketako irabazlea

Testua: Maider Betelu Garbosa

1. Noiztik duzu argazkilaritzarako zaletasuna?
 Anaia argazkilaria izanda erraza da zaletasuna izatea. Urte asko daramatzat anaiak egiten duen lana ikusten eta atsegin dut, beraz, duela bi urte nire lehendabiziko argazki kamera erosi nuen. Argazkilaritzako ikastaro bat egin nuen Arakilen eta, orain, ikasitakoa erabiltzeko garaia da. Askok ikasi dut, hori bai, argazki asko eginez. Hala ere, oraindik badut asko ikasteko.

2. Beti kamara gainean duzula ibiltzen zara?
 Denbora librean daukadanean bai. Batzuetan argazkia ateratzeko, argiak, eguraldiak edota zure egoerak baldintzatzen zaitu. Baina esperoz duzunean argazki polit bat ateratzeko aukera izaten al duzu.

3. Guaixeko neguko argazki lehiaketa irabazi duzu. Espero al zenuen?
 Ez nuen espero, argazki polit asko aurkeztu zirelako lehiaketara. Guaixeko argazki lehiaketan parte hartzen nuen lehendabiziko aldia zen. Inoiz ez dut beste argazkilaritzako lehiaketetan parte hartu, baina honen emaitza ikusita hemendik hurrera ziur beste alditan aurkeztuko naizela.

4. Non hartu zenuen argazkia?
 Arruizten izan zen, gauean elurra egin zuen eta mendira ibiltzera joan nintzen. Egun hartan, Guaixera bidaltzeko argazki bat ateratzeko ideiarekin joan nintzen argazki kamerarekin kalera. Argazki hori aukeratu nuen; lehiaketara aurkezteko modukoa zela pentsatu nuen.

5. Argazki hori berezia al da zuretzat?
 Orain bai. Egun polita egin zuen



Guaixeko lehiaketan saritutako argazkia.

eta asko disfrutatu nuen argazkiak ateratzen. Orain, argazki berezi horrek, eguna birgogoratzeko eta lehiaketa irabazi dudala oroitzeko balio dit.

6. Paisajeak edo pertsonak ateratzea nahiago?
 Oso desberdina da, argazkilaritzak muga oso zabalak ditu eta argazkiak egiteko modu desberdin asko daude. Pertsonen argazkiak egitea nahiko zaila iruditzen zait, bere jarrerak baldintzatzen zaituelako. Pertsonen argazkiak ere ateratzen ditut, baina orokorrean paisaiak nahiago ditut.

7. Zein kamerarekin hartu zenuen argazkia?
 Nire reflex kamara digitalarekin, Canon Eos 400D. Pixkatxo bat bai, baina ez dut gustuko argazkiak gehiegi erretokatzea. Hobe da argazkia hasieratik ongi ateratzea ukiturik eman behar ez izateko.

8. Sakanako zein txoko da politena argazkiak ateratzeko?
 Oso zaila da erantzutea, leku bakoitzak badu bere berezitasuna. Urbasa izan daiteke gehien gustuko dudana lekua.

9. Sakanan argazkilaritzarekiko zaletasuna dagoela uste duzu?
 Bai, naiz eta jende askok ez duen ikastaro bat egiteko aukerarik izan. Baina zaletasuna argazki kamera erabiltzen sortzen da eta, gaur egun, dauden kamerak errazagoak direnez gero, zale gehiago egongo dira. Argazkilaria oso ezagunak ditugu gurean.

10. Gainera saria duzu: Ramosek emandako MP3a.
 Nik ateratako argazkia jendeak ikustea nahiko saria da. Gainera, gustuko dudana egiteagatik MP3 bat irabazi badut ba askoz hobe, sari bikoitza. Eskertzen da saria eta, batez ere, lehiaketa antolatzea.

11. Orain Udaberriko argazki lehiaketa jarriko da martxan. Parte hartzera animatuko zara?
 Ea argazki aproposen bat ateratzen dudan Guaixera bidaltzeko. Argazkilaritzan zaletasuna duten guztiak animatzen ditut Guaixeko argazki lehiaketan parte hartzera. Aukera paregabea da zure argazkiak jendearen aurrean erakusteko eta, auskalo, lehiaketa irabazten al duzue!

Guaixe erakusleiho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakusleihoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixea egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea